

277/2010 DEKRETUA, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen, larrialdiei aurre egiteko. (Huts-zuzenketa, EHAA 14ZK., 2014/01/22)

Botere publikoek herritarren bizitza-eskubidea eta integritate fisikoa bermatu behar dute, baina ez da planteatu behar herritarrek babesaren lortzea administrazio publikoen bidez bakarrik: arriskuak jatorrian prebenitzeko eta kontrolatzeko neurriak hartzea komeni da, bai eta hasiera-hasieran ekiteko neurriak hartzea ere larrialdi bat dagoenean.

Gaur egungo gizarte teknologikoan, herritarrek arriskuak ezagututa eta antzemanda errazago abiaraz daitezke arriskua gutxitzen duten edo erantzun egoki bat aurreikusten duten politika aktiboak. Arriskuak kudeatu eta kontrolatu ahal izateko, hainbat prebentzio-neurri jarri behar dira martxan –bai hondamendi handiak daudenerako, bai arrisku arruntetarako–, gizartearen kontura dadin segurtasuna herritarren eskubidea eta betebeharra dela.

Horrela, bai apirilaren 3ko 1/1996 Legeak -larrialdiak kudeatzeari buruzkoak-, bai urtarrilaren 21eko 2/1985 Legeak –babes zibilar buruzkoak-, herritarren hainbat eskubide eta betebeharrak aurreikusten dituzte, larrialdiak prebenitzeari eta erantzun bat emateari dagokionez. Batik bat, zenbait jarduera, establezimendu, instalazio, gune edo egoitzatako titularren autobabes-betebeharrak aurreikusten dituzte, bai arriskuak sor ditzaketelako, bai arrisku larri baten aurrean ahulgune nabarmenak dituztelako, bai erkidegoarentzat funtsezkoak diren zerbitzuak jarraitzea edo berriro eskaintzea hil edo bizikoa delako.

Larrialdiak Kudeatzeko Legearen 11.1 artikulua agintzen du katalogo bat egitea pertsonentzat, beren ondasunentzat eta ondare kolektiboarentzat arriskutsuak izan daitezkeen jarduerekin, jarduera horiek egiten diren leku edo establezimenduekin, bai eta kasu bakoitzean derrigorrezkoak diren autobabes-neurriekin ere. Leku eta establezimendu horiek Autobabes Plan bat eduki behar dute, eta gutxienez hauek denak sartuko dira barruan: arriskuen identifikazioa eta ebaluazioa; arriskuak murrizteko edo ezabatzeko prebentzio-plan bat; alarma, sorospen eta ebakuazioetan garatu beharreko neurrien eta jardueren plan bat, eta plan horren integrazioa babes zibileko planetan; informazio, prestakuntza eta ekipamendu egokiak instalazioetako langileentzat; arduradun bat izendatzea, eraginkorrak izan daitezkeen Autobabes Planaren neurriak eta babes zibileko agintarietarako harremanak.

Euskal arautegiak xedatzen duenez, katalogo horren barruan joango da, gutxienez, babes zibilar buruzko urtarrilaren 21eko 2/1985 Legearen 5. artikulua aipatzen duen edukia. Artikulu hori garatu du martxoaren 23ko 393/2007 Errege Dekretuak, larrialdiak sor ditzaketan zentroen, establezimenduen eta egoitzen Oinarrizko Autobabes Arautegia onartzen duenak.

Bestalde, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen 9. artikulua aurreikusten duenez, legeek Euskadiko administrazio publikoei arriskuak prebenitzeko ematen dizkieten eskumenez gain, babes zibilar arduratzen diren organoei dagokie autobabesa sustatzea eta zabaltzea, istripu, hondamendi edo zorigaitzetan jarduteko moduz informatzea, bai eta arriskuen prebentziorako arautegia betetzen dela zaintzea ere, ikuskaritza- eta zigortze-lanak eginez, beren eskumenen barruan.

Arautegi horren eta Oinarrizko Autobabes Arautegiaren aurretik, arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko hainbat arau eman dira -legalak, erregelamenduzkoak eta teknikoak-, autobabes- edo larrialdi-planak edukitzeko obligazioarekin. Arau horien artean aipatzekoak dira lan-arriskuak prebenitzeari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea, helburutzat langileen eta establezimenduan dauden beste pertsonen babesaren sustatzea duena, hondamendiren bat gertatuz gero. Nolanahi ere, lan-arriskuak prebenitzeko arautegiaren autobabesa beste batzuetan ez da bat etorriko babes zibileko arautegiaren autobabesarekin, ez arriskuei ez hartzaileei dagokienez.

Badaude, bestalde, sektoreko hainbat arategi –Euskadin zein estatuan–, zenbait jardueratako titularrak behartzen dituztenak autobabes- edo larrialdi-planak edukitzera, batzuetan beste aurreikuspenik gabe, edo autobabes-arauegiak dioenera mugatuz; beste batzuetan, berriz, araututa daude planen edukia, haien prestaketa eta administrazio-kontrola.

Beraz, bai Oinarrizko Autobabes Arauegiak bai xedapen honek aintzat hartzen dute aurreko egoera, eta osatu egiten dituzte berariazko sektore-arauegia duten jarduerak.

Arauegi honek autobabesa definitu eta garatu, administrazio publikoen kontrol-tresnak finkatu, eta horrela betetzen dira larrialdiak kudeatzeari buruzko apirilaren 3ko 1/1996 Legearen 9., 10. eta 11. artikulua. Horretarako, bere egiten ditu Oinarrizko Autobabes Arauegi estatalaren eduki minimoak, eta sakondu egiten du autobabes-betebeharretan: hedatu egiten du horren mende dauden jardueren eta establezimenduen katalogoa, eta betebehar horiek zabaldu egiten ditu estatuko arategiaren xedapen minimoez harago. Herritarrentzat, ingurunearentzat eta ondasunentzat arriskutsuak, garrantzizkoak eta kaltegarriak izan daitezkeen jardueren berariazko sektore-arauegia ere errespetatzen du.

Alde batetik, arategi honek autobabes-betebeharrak zabaltzen ditu estatuko arategiaren barruko oinarrizko autobabes-arauegian berez sartuta ez dauden jarduera eta zentroetara. Luzapen hori egiteko, kontuan hartzen dira larrialdien euskal sisteman historian zehar izandako arriskuak, bai eta dagoen arriskuaren kultura ere gure ingurune sozio-ekonomikoan, non jarduera edo establezimendu askok Autobabes Planak egin dituzten, legez beharturik egon ez arren, bai norberaren konbentzimenduz, bai ingurune ko kulturagatik, bai administrazio publikoek sustatuta. Halaber, arrazoi eta oinarri beroriekin, egokitzen da zenbait jardueraren Autobabes Planak homologatzea. Lan horren arduraduna larrialdien eta babes zibilaren arloan eskumenak dituen EAEko Administrazio Orokorren organoa da.

Arauegiak Autobabes Planen kontrol- eta ikuskaritza-prozedurak garatzen ditu, administrazio bakoitzaren egitekoak banatzen ditu, eta arautzen du Autobabes Planen erregistro orokorra. Erregistro hori larrialdien eta babes zibilaren arloan eskuduna den EAEko Administrazio Orokorreko organoaren barruan dago, eta beharrezko datu guztiak eguneratuta edukiko ditu, larrialdi-zerbitzuen jarduera optimizatzeko. Era berean, dekretuaren ezarpen-eremuaren barruko jardueren titularrek dituzten betebeharrak zehazten dira, batik bat Autobabes Planen administrazio-kontrola eta aipatutako Erregistroan izena ematea.

Azkenik, dekretuak aurreikusten du arategiko autobabes-neurriak beren borondatez hartzen dituzten jarduerak edo establezimenduak egon daitezkeela, ezarpen-eremuaren baitan sartu ez arren, eta Autobabes Planak egin ditzaketela, dekretu honetan xedatutakoari jarraiki. Horregatik, hartara beharturik egon gabe Autobabes Plan bat egin dutenek horren datuak eman ditzakete Autobabes Planen Erregistro Orokorrean, larrialdien euskal sistemarekiko lotura erraztearren.

Era horretan, Herrizaingoko sailburuak hala proposatuta, Euskadiko Babes Zibilaren Batzordearen oniritziarekin, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin adostuta, eta Gobernu Kontseiluak aurrez deliberatu eta onartu ondoren 2010eko azaroaren 2ko saioan,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.

1.- Xedapen honen xedea da derrigorrezko autobabes-neurriak arautzea pertsonentzat, ondasunentzat eta ondare kolektiboarentzat arriskutsuak izan daitezkeen jarduera, zentro,

establezimendu, gune edo egoitzei, bai eta arrisku larrian egon daitezkeenei ere.

2.- Arau honen xedea da derrigorrezko autobabes-neurriak ezartzea dekretu honen I. eranskinean zerrendatutako jarduera, zentro, establezimendu, esparru, instalazio edo bulegoetarako; baita honako hauek arautzea ere: autobabes-planak eta aurreikusteko moduko arriskuetaarako baliabideak landu eta benetan eta egiazki ezarri eta euren efikaziari eustea; euren administrazio-kontrola eta Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorra.

3.- Arautegi honen ondorioetarako, honako hau da autobabesa: jarduera publiko zein pribatuko titularrek hartutako ekintza- eta neurri-sistema, beren baliabideekin eta bitartekoeekin, eta beren eskumenaren baitan, pertsonen eta ondasunen gaineko arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko; beharra balego, erkidegoarentzat oinarritzkoak diren zerbitzuek jarraitzeko edo berriz martxan jartzeko; larrialdiei erantzun egokia emateko eta jarduera horiek larrialdien euskal sisteman integratzen direla bermatzeko.

4.- Autobabesaren plangintzaren aurreikuspenak unean uneko datu erreal, egiaztagarri eta objektiboetan oinarritu behar dira, ez, ordea, arauzko gomendioetara edo betekizunetara egokitzeko neurriak ezarri gero egongo liratekeenetan.

2. artikulua.- Ezarpen-eremua.

1.- Dekretu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie I. eranskineko jarduera guztiei, Euskadiko Autonomia Erkidegoan daudenei eta titularra edonor izanik ere. Nolanahi ere, osagarri moduan aplikatuko zaie autobabesaren arloan berariazko sektore-arautegia duten jardueri, I. eranskinaren 1. atalean aipatuei.

2.- Halaber, eskumena duten administrazio publikoek Autobabes Planak egitea eta ezartzea exijitu ahal diete I. eranskinetik kanpoko jardueren titularrei, arriskutsuak direnean edo arriskuan daudenean.

3.- Administrazioaren kontroletik eta erregistrotik salbuetsita daude Defentsa Ministerioaren, Espetxeen, Segurtasun Indar eta Kidegoen, Aduana Aterpeen eta organo judizialen mendeko zentroak, establezimenduak edo instalazioak.

4.- Arau honen barruko instalazioek edo jarduerak berariazko autobabes-arautegia dutenean, beren Larrialdietako Barne Planen administrazio-kontrola eta kontrol teknikoak berariazko arautegi horri jarraituz egingo da.

5.- Dekretu honek xedatzen duenez gain bete beharrekoa da lan-arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legea, bai eta hura garatzen duen arautegia ere.

3. artikulua.- Ezarpen-irizpideak.

1.- Dekretu honetan finkatutako autobabes-betebeharrak arau minimo edo osagarri gisa exijituko dira, 2.1 artikuluari jarraiki.

2.- Dekretu honetan aurreikusitako Autobabes Planak eta beste arautegi aplikagarri batek agindutako beste prebentzio- eta autobabes-tresnak dokumentu bakar batean batu daitezke, era horretan saihestu egiten bada informazioa beharrik gabe bikoiztea eta titularraren edo agintari eskudunaren lanak errepikatzea, baldin eta arau honen eta aplikagarri diren besteen funtsezko eskakizun guztiak betetzen badira, 2.1 artikuluari jarraiki.

II. KAPITULUA

AUTOBABES-BETEBEHARRAK

4. artikulua.- Autobabes-betebeharrak.

1.– I. eranskinean aipatutako jardueren titularrek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Jarduerari dagokion autobabes-plana edo haren forma sinplifikatua –aurreikusteko moduko arriskuetaarako baliabide gisa– lantzea eta honi komunikatzea: jarduera ustiatu edo abiarazteko lizentzia, baimen edo eskueste erabakigarria eman behar duen administrazio publiko eskudunaren organoari.

b) Dekretu honetan xedatutako datuak Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorreara bidaltzea, eta datu horiek eguneratuta izatea.

c) Autobabes-planak edo haren forma sinplifikatua –aurreikusteko moduko arriskuetaarako baliabide gisa– ezartzeko eta haien efikaziari eusteko jarduerak garatzea, dekretu honetan definitutako edukiarekin eta irizpideekin bat etorruta.

d) Autobabes-plana edo, hala badagokio, haren forma sinplifikatua –aurreikusteko moduko arriskuetaarako baliabide gisa– ezarri izanaren egiaztagiria ematea, III. eranskinean zehaztutako informazioa gehituz, eta Euskal Autonomia Erkidegoan larrialdien eta babes zibilaren inguruko eskumenak dituen Administrazio Orokorreko organoari bidaltzea, Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorrearen bidez.

e) Autobabesaz arduratzeko pertsona fisikoak izendatzea, jardueraren titularrak ez badira.

f) Zerbitzuko langileak informatu eta trebatzea eduki hauei buruz: autobabes-planak edo haien forma sinplifikatua –aurreikusteko moduko arriskurako baliabide gisa–.

g) Arriskuko eta larrialdiko egoerei aurre egiteko behar diren bitarteko pertsonal eta materialei eustea.

h) Erantzukizun zibileko aseguru bat edo beste finantza-berme baliokideren bat sinatzea, beren jarduera, instalazio, zentro, establezimendu edo bulegoek babes zibilaren arloan eragin ditzaketan kalteak estaltze aldera.

i) Dagokion autobabes-planean edo haren forma sinplifikatuan –aurreikusteko moduko arriskurako baliabide gisa– aurreikusitako neurriak edo egoeraren arabera egokienak eta arrazoizkoenak aplikatzea.

j) Jarduera ustiatu edo abiarazteko lizentzia, baimen edo eskueste erabakigarria ematen duen organoari jardueren edo instalazioen edozein aldaketa funtsezkoen berri ematea, autobabesari dagokion guztian.

k) Nahitaezko ariketa edo simulakro periodikoak egitea babes zibileko plan bereziek eragindako esparru, zentro, establezimendu eta instalazioetan, bai eta autobabes-planetan jasotako ariketa eta simulakro periodikoak egitea ere.

2.– I. eranskinean aipatutako jardueren titularrek betebeharrak hauek izango dituzte administrazio publikoetako agintari eskudunekiko lankidetzari dagokionez, aplikatu beharreko babes zibileko arauen eremuan:

a) Lankidetzan aritzea agintari publikoekin herritarrentzako autobabes-neurrien berri ematen eta neurriok sustatzen, bai eta biztanleria trebatzeko gainerakoetan ere jardueren eremuaz kanpokoan eragina duten jarduerak direnean.

b) Titularrek programak eginez gero ukitutako pertsonak informatzeko, ondo bermatu behar dute informazioa guztiz eskuragarria izatea edozein motatako desgaitasuna duten pertsonentzat.

c) Hala badagokio, beharrezko den informazioa ematea autobabes-plana eta aurreikusteko moduko arriskueterako baliabideak integratzeko goragoko maila bateko autobabes-planetan eta babes zibileko planetan.

d) Larrialdien Euskal Sistemaren Zerbitzuen esku jartzea Erregistroko datuen idatzizko kopia bat, plano eta guzti, lokalaren edo establezimenduaren sarreran, agerian.

e) Aldez aurretik komunikatzea EAEko Administrazio Orokorrean larrialdien eta babes zibilaren arloan eskumena duen organoari Autobabes Planean edo aurreikusteko moduko arriskueterako baliabidean aurreikusitako simulakroak edo ariketak, bai eta informazio-kanpainak eta kontrolerako behar diren datuak ere, dekretu honen 10. artikuluan xedatu legez.

f) Babes zibileko agintari eta zerbitzuei azkar ematea edozein larrialdiren berri eta, orobat, beren jardueren ondoriozko arriskua nabarmen handitzea eragin dezakeen edozein gorabeheraren berri.

g) Babes zibileko agintariei eta agenteei eskatzen duten informazioa ematea jarduerari buruz, eta informaziora iristen uztea ikuskaritza-zereginetan dihardutenean.

3.- Hezkuntza-ziklo guztietako ikastetxeek nahitaezkoa izango dute babes zibilaren inguruko informazioko, prebentzioko eta dibulgazioko jarduerak programatzea, eta aldizka ebakuazioko ariketa edo simulakro bat egitea, dagokion autobabes-planaren aurreikuspenen arabera.

5. artikulua.- Langileen autobabes-betebeharrak.

Dekretu honen I. eranskinean aipatutako jardueren zerbitzuko langileek nahitaez hartu behar dute parte, euren gaitasunak kontuan izanda, autobabes-planean edo bestelako autobabes-baliabide eta -neurrietan, eta haien arabera esleitzen zaizkien funtzioak onartu.

III. KAPITULUA

AUTOBABES-PLANAK

6. artikulua.- Araubide aplikagarria.

1.- Autobabes Planean finkatzen da jarduera, zentro, establezimendu, gunea, instalazio edo egoitza baten marko organikoa eta funtzionala, pertsonen eta ondasunen gaineko arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko, eta larrialdietan erantzun egokia emateko, jarduerako titularraren mendeko esparruan, jarduera horiek larrialdien euskal sistemarekin integratzen direla bermatuz.

2.- Jarduerako titularraren ardura da Autobabes Plana egitea, ezartzea, mantentzea eta berrikustea.

3.- Zentro, establezimendu, instalazio edo egoitzetan egindako aldi baterako jarduerak direnean - eta egin asmo den eta 1. eranskinean aipatuta datorren jarduera ez den beste bat egiteko baimena dutenean-, aldi baterako jardueraren antolatzaileak jarduera berria hasi aurretik egin eta ezarri behar du Autobabes Plan osagarri bat.

4.- Autobabes-plana eduki behar duten zentro, establezimendu, espazio, instalazio eta egoitzek beren planean integratu behar dituzte fisikoki bertan egiten diren jarduera guztien planak, eta aintzat hartu behar dituzte Dekretu honen 1. eranskinean aipatu gabeko gainerako jarduerak.

Integrazio horretarako, zentro, establezimendu, eremu, instalazio edo bulegoko planaren arrisku-azterketak barne hartu behar ditu jarduera bakoitzaren arrisku-azterketa, eta bateragarriak izan behar dira plan hori eta jarduera horien gainerako autobabes-planak.

Zentro, establezimendu, eremu, instalazio eta bulego horietan autobabes-plan integral bakarra

onar daiteke, baldin eta jarduera bakoitzaren arrisku partikular guztiak kontuan hartzen badira.

5.- Errentan, kontzesioan edo kontratan dauden jardueretako titularrek, Autobabes Plana eduki behar duten zentro, establezimendu, gune, instalazio eta egoitzetan badaude, beren planak egin, ezarri eta integratu behar dituzte, beren baliabide eta bitarteko propioekin, I. eranskinari jarraiki.

6.- Administrazio publiko eskudunek noiznahi eska diezaiokeite jardueraren titularrari Autobabes Planak aldatzeko, zuzentzeko edo eguneratzeko, haiek egin ziren uneko egoerak aldatu badira, edo bat etor daitezten autobabes-arautegiarekin eta babes zibileko planek diotenarekin.

7. artikulua.- Egitura eta edukia.

1.- Autobabes Planak identifikatu eta ebaluatu egiten ditu arriskuak, arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko ekintzak eta neurriak, bai eta babes-neurriak eta larrialdietako beste jarduerak ere.

2.- Autobabes Plana dokumentu bakar batean joango da, II. eranskineko egitura eta eduki minimoaren arabera.

3.- Sektoreari aplika dakioken arautegia betez titularrek egin beharreko dokumentu hori edo antzekoak dokumentu bakar baten elkar daitezke, era horretan saihesten bada informazioa beharrik gabe bikoiztea eta titularrak edo agintari eskudunak egindako lanak errepikatzea, baldin eta arautegi honen funtsezko baldintza guztiak betetzen badira.

4.- Prebentzio- eta autobabes-tresna beste arautegi bati jarraituz eginda daukan titularrak, tresna horretan aintzat hartu ez den II. eranskinaren parte gehitu behar dio.

5.- Autobabes Planaren dokumentuan joango dira prebentziozko neurriak eta larrialdietan beharrezkoak diren prozedura eta protokolo guztiak.

8. artikulua.- Plana egiteko irizpide minimoak.

Honako hauek dira Autobabes Plana egiterakoan kontuan hartu beharreko irizpide minimoak:

a) Jarduerak dituen arriskuen aurrean autobabesaz irizpena emateko gai den teknikari batek idatzia eta sinatua egon behar du, bai eta jardueraren titularrak ere, pertsona fisikoa bada, edo, pertsona juridikoa bada, hura ordezkatzeko duen pertsonak.

b) Erabakitzen diren prebentzio- eta kontrol-prozedurek kontuan izango dituzte, gutxienez, alderdi hauek:

- Istripuen edo gertaera larrien arrazoiak saihesteko hartu beharreko ardurak, jarrerak eta jarduera egokien kodeak.

- Arriskutsuak diren lanak edo eragiketak egiteko baimen bereziak.

- Jardueraren titularrari anomaliak edo gorabeherak jakinaraztea.

- II. eranskinaren 5. kapituluaren aipatutako instalazioen, ekipoen, sistemen eta beste elementu arriskutsu batzuen prebentzio- edo mantentze-lanak, haien kontrola bermatzeko.

- II. eranskinaren 5. kapituluaren aipatutako instalazioen, ekipoen, sistemen eta babeserako eta segurtasunerako elementuen mantentze-lanen programa, haien eraginkortasuna bermatzeko.

c) Antolaketa hierarkizatu bat finkatuko da, dagoen antolamenduaren eta pertsonalaren barruan, eta erabakiko dira partaide guztiek larrialdietan dituzten zereginak eta ardurak.

Egitura horren baitan, jardueraren titularrak arduradun bakar bat izendatuko du arriskuen prebentzio- eta kontrol-jarduerak kudeatzeko, hau da, Autobabes Planaren arduraduna.

II. eranskinari jarraiki, agintea eta kudeatzeko ahalmena dituen beste norbait Larrialdi Planaren zuzendari izango da. Jardueraren titularrak izendatuko du hura ere, eta Autobabes Planaren arduraduna izan daiteke.

Kargu horiek izendatu ezean, zeregin horiek jardueraren titularraren gain doazela pentsatuko da.

d) Larrialdi Planaren zuzendariak jarriko du plana martxan, bertan esaten denari jarraiki, eta egoki denean larrialdia deklaratu du, Babes Zibileko agintari eskudunei jakinaraziko die Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiak Koordinatzeko Zentroen bidez (SOS Deiak), langileak jakinaren gainean jarri, eta berehalako neurriak hartuko ditu istripuaren edo gertaeraren ondorioak murrizteko.

e) Larrialdi Planak zehaztu behar ditu larrialdiak izan daitezkeen istripuak edo gertaerak, eta bertan finkatutako larrialdiekin lotuko ditu, bai eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko jarduera-prozedurekin ere.

f) Larrialdietako jarduera-prozedurek gutxienez honako hauek bermatu behar dituzte:

- Detekzioa eta alerta.
- Alarma.
- Esku-hartze koordinatua.
- Babesa, ebakuazioa eta sorospena.
- Arriskuan egon daitezkeen pertsona guztiak larrialdiaz informatzea.
- Larrialdi-zerbitzuen kanpoko laguntza eskatzea eta jasotzea.

9. artikulua.- Plana ezartzeko irizpideak.

1.- Autobabes Plana ezartzearen barruan joango da, gutxienez, langileak prestatzea eta gaitzea, jendea informatzeko bideak finkatzea eta plana aplikatzeko baliabideak eta bitartekoak ipintzea.

2.- Horretarako, Autobabes Planak irizpide hauek izango ditu:

- Aldez aurreko informazioa. Langileei eta jendeari jardueraren arriskuez informatzeko bideak jarriko dira, bai eta langileei Autobabes Planaz informatzeko ere.

- Autobabes Planaren barruko langileen prestakuntza teorikoa eta praktikoa, prestakuntza-jardueren programa egoki baten bidez.

- Beharrezkoak diren baliabide eta bitarteko ekonomikoen definizioa, hornikuntza eta kudeaketa.

3.- Jardueraren titularrak edo haren ordezkariak Autobabes Plana ezarri izanaren ziurtagiria emango du, III. eranskinean aipatutako informazioa erantsita, eta larrialdien eta babesa zibilaren arloan eskuduna den EAEko Administrazio Orokorreko organoari bidaliko dio.

10. artikulua.- Planaren eraginkortasunari eusteko irizpideak.

1.- Autobabes Planaren eraginkortasunari eusteko jarduerak sartuta joan behar dute prestakuntza-prozesu etengabe, jarraitu eta errepikakor batean, esperientziaz ikasitakoa biltzen duena eta eraginkortasun-maila egokia lortzeko eta mantentzeko balio duena.

2.- Aldizkako prestakuntza-jardueren programa egoki bat finkatuko da, Autobabes Planaren barruan izendatutako langileen prestakuntza teorikoa eta praktikoa bermatzeko, eta jakintza horiek eskuratu direla egiaztatzeako sistemak edo moduak finkatuko dira.

3.- Beharrezkoak diren baliabide eta bitarteko materialak eta ekonomikoak mantentzeko programa bat aurreikusiko da.

4.- Autobabes Planak ebaluatzeko eta larrialdi-planen eraginkortasuna ziurtatzeko, larrialdietako ariketak edo simulakroak egingo dira, planean erabakitako maiztasun minimoarekin, gutxienez urtean behin, eta emaitzak ebaluatuko dira.

5.- Ariketak edo simulakroak egitearen helburua zera ziurtatzea eta egiaztatzea izango da:

- Larrialdi bati erantzuteko antolaketaren eraginkortasuna.
- Erantzuna antolatzea dagokien langileen gaikuntza.
- Jarduerako langile guztien entrenamendua, larrialdi bati erantzuteko.
- Izendatutako baliabideak eta bitartekoak nahikoak eta egokiak direla.
- Jarduera-prozeduren egokitasuna.

6.- Ariketa edo simulakroetan erabat edo hein batean aktibatuko dira Larrialdi Planaren barruko ekintzak.

7.- Batez ere establezimenduaren barruko jarduera-prozedurak landuko dira ariketa edo simulakroetan, eta ez da ezinbestekoa kanpoko larrialdi-zerbitzuek parte hartzea.

8.- Derrigorrezkoa da Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari komunikatzea, telefonoz, establezimendutik edo jardueratik kanpora nabaritu daitezkeen ariketak edo simulakroak, baita Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren baliabideek parte hartuko duten simulakroak ere; komunikatu ere, egiten diren egun berean, hasieraren eta amaieraren berri emanda.

9.- Establezimenduaren edo jardueraren titularrak parte hartu nahi badu establezimendutik kanpoko baliabideen –larrialdiei aurre egiteko eta babes zibilerako euskal sistemakoen– simulakroan, gutxienez hilabeteko aurrerapenarekin proposatu beharko dio hori babes zibilaren eta larrialdien arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzari. Parte-hartze edo lankidetzaz hori beren irizpideen bitartez baloratuko dute larrialdiei aurre egiteko eta babes zibilerako euskal sistemaren zerbitzuek, beren lan-programen edo programatutako simulakroaren interesaren arabera.

Edonola ere, larrialdiei aurre egiteko eta babes zibilerako euskal sistemaren zerbitzuek simulakro edo ariketetan behatzaile edo partaide gisa parte hartzeko eskatu ahal izango dute, jardueraren titularrari eta babes zibilaren eta larrialdien arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzari hurrengo ariketan edo simulakroan egon nahi dutela adieraziz».

10.- Ariketak edo simulakroak jakinarazteko beharrezkoa den informazioaren edukia, aurreko paragrafoan aipatzen dena, dekretu honen IV. eranskinean zehazten da.

11.- Enpresak Administrazio Publikoen eskura edukiko ditu Planaren eraginkortasunari eusteko jardueren berri, bai eta egindako ebaluazio-txostenen berri ere, Autobabes Planaren arduradunak sinatuta.

11. artikulua.- Planaren indarraldia eta plana eguneratu eta berrikusteko irizpideak.

1.– Autobabes-planak amaiera jakinik gabeko indarraldia izango du eta behar bezala eguneratu

behar da.

2.– Titularrak hiru urtean behin gutxienez berrikusi behar du plana, edo jarduerak edo azpiegiturak aldatzen direnean hasierako idazkerari dagokionez, edo ariketa edo simulakro baten emaitzen ondorioz, plana aldatzea beharrezkoa edo gomendagarria den ikusteko. Titularrak dokumentuz jasota utziko du egindako berrikuspena.

3.– Aldian aldiko edo aparteko berrikuspenaren ondorioz autobabes-plana aldatu behar bada funtsezko edo egiturazko alderdiei dagokienez, teknikari eskudunak beharrezko aldaketak idatziko ditu eta Euskadiko autobabes-planen erregistro orokorrari komunikatuko zaizkio, zeinean data idatzohartuko baitzaio planaren azken aldaketari, berrikuspenaren ondoriozkoari.

12. artikulua.- Babes zibileko planetan koordinatzea eta integratzea.

1.- Babes zibilean eskumena duten organoek zainduko dute Autobabes Planak eraginkorrak izatea sor daitezkeen arrisku guztien aurrean, eta horiek koordinatuta egotea babes zibileko plan aplikagarriekin, bai eta kanpoko aginte-unitatearekin ere, haren beharra dagoenean.

2.- Helburu horrekin, organo horiek finkatutako protokoloen bidez bermatuko da, batetik, gertatzen diren eta autobabesean eragina izan dezaketen gorabeheren berri berehala ematea eta, bestetik, kasu bakoitzean parte hartu behar duten larrialdi-zerbitzuen mobilizazioa. Halaber, larrialdi-zerbitzu horiek koordinatuko dituzte Autobabes Planaren zerbitzuekin, eta babes zibilaren arloan eskumena duten agintariekin.

III BIS KAPITULUA

AUTOBABES-NEURRIAK ALDI BATERAKO EKITALDI ETA JARDUERETAN.

12.bis artikulua.- Autobabesa aldi baterako ekitaldietan.

1.– I.3 eranskinetako jarduerak autobabes-neurri hauen mende egongo dira:

a) Aurreikusteko moduko arriskueterako baliabidea prestatu behar dute II bis eranskinean xedatutakoarekin bat etorrira, larrialdietan jarduteko plana eta ezarpen-plana egin, eta Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorrari jakinarazi, erregistroari gutxieneko eduki hau izango duen komunikazioa eginez:

- Ekitaldiaren izena.
- Ekitaldi-mota eta definizioa.
- Ekitaldiaren deskripzioa.
- Zenbat bertaratuko diren (gutxi gorabehera) eta erabiltzaileen deskripzioa.
- Ekitaldiaren data.
- Ekitaldiaren lekua (helbidea eta koordenatuak).
- Titularraren identifikazioa.
- Segurtasun-baliabide eskuragarria.

b) Egin beharreko jarduera sartzan bada autobabeserako oinarrizko arauaren I. eranskinaren esparruan –Larrialdi-egoerak sor ditzaketen zentroen, establezimenduen edota bulegoen autobabeserako oinarrizko araua onartzen duen martxoaren 23ko 393/2007 Errege Dekretuak

onetsia–, autobabes-plan osoa edo egun dagoenaren autobabes-plan osagarria landu beharko da.

2.– Kapazitatea edo edukiera txikiagoa bada manu honen lehen paragrafoaren a) letran aurreikusitako jakinarazpena beharrezkoa duen zifra baino, jardueren titularrek borondatez aurkeztu ahal izango dute jakinarazpen bat, eduki honekin:

- a) Ekitaldiaren izaera eta ezaugarriak.
- b) Titularra edo legezko ordezkaria.
- c) Larrialdien arloko arduraduna.
- d) Arriskuaren azterketa eta neurri zuzentzaileak.
- e) Larrialdietako bitartekoen eta eskuartekoen inbentarioa.
- f) Larrialdiei aurre egiteko jardun-plana.
- g) Barne-komunikazioak.
- h) Komunikazioak Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemarekin.
- i) Planimetria.

3.– Babes zibilean eta larrialdietan eskumena duen sailak bere web orrialdean eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuko ditu aurreko paragrafoetan aurreikusitako dokumentuen formatu ofizialak.

12.ter artikulua.- Aurreikus daitezkeen arriskueterako baliabideak.

1.– Aurreikusteko moduko arriskueterako baliabidea da ekitaldiaren estaldura egokia bermatzeko neurri guztien multzoa, segurtasunaren eta asistentzia sanitarioaren ikuspegitik begiratuta, eta kontuan hartuta ekitaldiaren ezaugarriak eta aurreikusteko moduko arriskuen identifikazioa.

2.– Baliabide hori diseinatzean, honako hauek hartuko dira kontuan: ekitaldiaren lekua, data, iraupena, ekitaldiaren arazoia, bertaratuko den jende-mota, aurreikusteko moduko arriskuak eta aurreikusi ezin direnak, kolektiboak eta indibidualak, meteorologia –ekitaldia toki irekian egiten bada–, giza baliabideak eta baliabide materialak, ebakuazio-ibilbideak, ospitaleak eta bertaratutako pertsonen segurtasuna berma dezakeen guztia.

3.– Aurreikus daitezkeen arriskueterako baliabideak, laburbilduta, honako hauek jasoko ditu, dekretu honen II. bis eranskinak aipatutako gutxieneko edukien arabera: titularren identifikazioa; jardueraren deskripzioa eta kokalekua; arriskuen analisia; autobabeserako neurriak eta baliabideak; detekzio- eta alerta-prozedurak; jarduera-plana; eta ezarpen- eta ebaluazio-programa.

4.– Aurreikusteko moduko arriskueterako baliabideak lantzean, gutxieneko irizpide hauek hartu behar dira kontuan:

a) Teknikari eskudun batek idatzi behar du, eta teknikari horrek berak eta jardueraren titularrak sinatu behar dute, pertsona fisikoa bada, edo titularra ordezkatzeko duen pertsonak, titularra pertsona juridikoa bada.

b) Arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko prozedurek hauek hartuko dituzte kontuan: arreta-neurriak, istripuen edo gertakari larrien zioak saihesteko; laneko baimen bereziak, arriskuak sortzen dituzten eragiketak edo atazak egiteko, eta jardueraren titularrari anomalia edo gorabeheren berri ematea.

c) Aurreikusteko moduko arriskueterako baliabideak arriskuen ebaluazioa eduki behar du, eta horren arabera zehaztuko dira ekitaldirako gutxieneko eta beharrezko baliabideak.

d) Antolaketa-egitura hierarkizatuta egongo da, kide guztiek larrialdietan eduki behar dituzten funtzioak eta erantzukizunak finkatuta.

e) Aurreikusteko moduko arriskueterako baliabidea aplikatzeko arduradunari dagokio honako hauek egitea: baliabidea abiaraztea; Babes Zibileko agintari eskudunei jakinaraztea, SOS-DEIAK Eusko Jaurlaritzako Larrialdiak Koordinatzeko Zentroen bidez; langileei informazioa ematea, eta berehalako neurriak hartzea, istripuaren edo gorabeheraren ondorioak gutxitzeko.

f) Larrialdietan jarduteko planaren edukiak: gerta litezkeen istripuak edo gorabeherak eta bertan ezarritako dagozkien larrialdi-egoerak, kasu bakoitzean aplikatu beharreko jardute-prozedurak. Hori horrela, honako hauek bermatu behar dira: detekzioa eta alerta; alarma; esku-hartze koordinatua; ebakuazioa eta sorospena; informazioa arriskuan egon daitezkeen pertsoneri eta larrialdi-zerbitzuen kanpoko laguntza eskatu eta jasotzea.

g) Ezarpena, jendea informatzeko tresnekin, eta ezarpenerako behar diren bitartekoak eta baliabideak.

h) Baliabideak planimetria ere jasoko du, honako hauei dagokienez: batetik, kokalekuak eta jarduera, eta, bestetik, esleitutako bitarteko eta baliabideen kokapena.

IV. KAPITULUA

BOTERE PUBLIKOEN AUTOBABESA KONTROLATZEA ETA SUSTATZEA

13. artikulua.- Administrazio eskudunei igortzea.

Autobabes-plana eta, hala badagokio, aurreikusteko moduko arriskueterako baliabidea hauekin batera joango da: jarduera abiarazteko behar den lizentzia, baimena eta eskuestea emateko behar diren gainerako dokumentuekin.

Jarduera abiarazi baino lehen, hau eskatu behar du jardueraren titularrak: Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorrean inskriba daitezela erregistro horretan inskribatu beharreko datuak.

15. artikulua.- Administrazio-eskumenak.

1.- Larrialdien eta babes zibilaren arloan eskuduna den EAeko Administrazio Orokorreko organoak eskumen hauek izango ditu:

a) Autobabesaren arloko eztabaida-guneak eta prestakuntza-jarduerak sustatzea.

c) Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorra finkatzea eta mantentzea.

d) Babes zibilaren arloan eskumena duten organoei dagozkien gainerako zereginak, artikuluko 3. atalari jarraiki.

2.- Jarduera ustiatzeko edo hasteko lizentzia edo baimena emateko eskumena duten administrazio publikoko organoek eskumen hauek izango dituzte:

a) Autobabes Planei buruzko agiriak jasotzea.

b) Egokitzen jotzen dituzten datu guztiak jasotzea, beren eskumenen barruan.

c) Eraikin berean edo aldamenean dauden jardueren titularrak behartzea Autobabes Plan bateratu bat aurkeztu eta ezar dezaten, egoerak eta ondasunen eta pertsonen babesak hala gomendatzen duenean, eta hori egiteko epe maximoa lau urtekoa izango da.

d) Autobabes-betebeharrak betetzen direla zaintzea, ikuskaritza- eta kontrol-lana eginez.

e) Larrialdien eta babesa zibilaren arloan eskuduna den EAEko Administrazio Orokorreko organoari jakinaraztea autobabesaren arloan interesgarriak diren egoerak eta informazioak.

3.- Larrialdien eta babesa zibilaren arloan eskuduna den EAEko Administrazio Orokorreko organoak eta babes zibilaren arloan eskudunak diren tokiko administrazioen organoek eskumen hauek izango dituzte:

a) Autobabes Plana aurkeztea eta eraginkortasunez ezarraraztea I. eranskinean aipatutako jardueren titularrei, bai eta arautegiak agintzen duen autobabesa betetzen dela ikuskatzea ere, bere eskumena denean.

b) Administrazio publikoen organo eskudunak premiatzea jarduerak ustiatzeko edo hasteko lizentziak edo baimenak eman ditzaten, aurreko ataleko d) paragrafoan aipatutako eskumenen barruan.

c) Aurreko ataleko d) paragrafoan aipatutako eskumena erabiltzea, jarduerak ustiatzeko edo hasteko lizentziak edo emateko eskumenak dituzten administrazio publikoetako organoek ez diotenean erantzuten egindako eskaerari.

d) I. eranskinean ez agertu arren, berez edo inguruneagatik arriskutsuak diren jardueren titularrak behartzea Autobabes Plan bat egin eta ezar dezaten, gehienez lau urte baino lehen. Halakoetan, titularrek izena eman behar dute Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorrean.

e) Arrisku bereziko jarduerak dituzten enpresen edo erakundeen arteko lankidetzak sustatzea, instalazioen eta inguruaren autobabesa areagotzeko.

f) Zigorrezko ahalmena erabiltzea, lege aplikagarriari jarraiki.

4.- Euskadiko Babes Zibilaren Batzordeak autobabesaren arloko zeregin hauek ditu:

a) Autobabesarekin lotuta, euskal arautegian egin beharreko berrikuspenak eta eguneratzeak proposatzea.

b) Autobabesaren euskal arautegia behar bezala interpretatzeko eta aplikatzeko irizpide teknikoak proposatzea.

c) Pertsonen eta ondasunen segurtasunari eragiten dioten autobabes-arauen proiektuei buruz informatzea.

d) Autobabesaren arloko irizpideak, azterketak eta proposamenak lantzea.

16. artikulua.- Autobabesa sustatzea eta bultzatzea.

EAEko administrazio publikoek, bere eskumenen esparruan, modu koordinatuan sustatuko dute autobabes-kultura herritarren artean, bai eta mota horretako neurriak hartu behar dituzten pertsonen artean ere. Horretarako:

Jarduketak garatu behar dira, herritarrek, enpresek eta erakundeek informazioa eta sentsibilizazioa har ditzaten arriskuen prebentzio eta kontrolaren alorrean, bai eta larrialdietarako prestatu eta larrialdiei erantzuteko gaietan ere.

a) Eskolan, autobabes-tekniken ikaspena sustatu behar da.

Autobabeserako antolamenduak sortzea sustatu behar da arriskua sortzen duten enpresa eta erakundeen artean, eta informazio eta aholkularitza egokia eman behar zaie.

17. artikulua.- Zehapen-araubidea.

Autobabes-betebeharrak ez betetzeak administrazio publiko eskudunen zehapena ekar lezake, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuan ezarritakoarekin bat eginda.

V. KAPITULUA

AUTOBABES-PLANEN ERREGISTRO OROKORRA

18. artikulua.- Sortzea, xedea eta adskripzioa.

1.– Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorra sortzearen xedea da plan horien datu aipagarriak inskribatzea, bai eta behartutako subjektuek dauzkaten bestelako autobabes-neurriak ere, larrialdietarako eta babes zibileko zerbitzu publikoei irispidea errazteko euren eskumenak baliatzeko behar duten informaziora; orobat, administrazio-kontrola eta ikuskaritza ahalbidetzea autobabes-arautegia betetzen dela bermatu behar duten administrazioei.

2.– Erregistroa adskribatzen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean larrialdien eta babes zibilaren eskumenak dituen zuzendaritzari, eta hark kudeatu beharko du.

3.– Erregistroak bi atal desberdin ditu:

a) Autobabes-planen atala.

b) Aurreikusteko moduko arriskueterako baliabideen atala.

19. artikulua.- Izaera eta zereginak.

1.- Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorra ez da publikoa, eta eskura duten bakarrak dira jardueren titularrak –beren erregistro-datuei dagokionez–, bai eta Larrialdien Euskal Sistemaren barruko zerbitzu publikok ere, Dekretu honetan aipatutako baldintzetan.

2.- Autobabes Planen Erregistro Orokorren barruko datu pertsonalek legez babestuta eta bermatuta daude.

3.- Dekretu honen I. eranskinean aipatutako jardueren, zentroyen edo establezimenduen titularrek derrigorrez eman behar dute izena erregistroan, aplikatu dakiekeen berariazko arautegia egon edo ez, eta Dekretu honen 2.3 artikuluan datoz salbuespenak.

Halaber, Erregistroan izena eman dezakete arautegi honi jarraituz Autobabes Plana egin nahi izan duten jarduera, zentro edo establezimenduetako titularrek, eta derrigorrez izena eman dutenen ardura berak izango dituzte, baina nahi dutenean eska dezakete erregistrotik ateratzea, beren jarduerarekin jarraitu arren.

4.- Autobabes Planen Erregistro Orokorrek zeregin hauek ditu:

a) Autobabes-planen eta aurreikusteko moduko arriskueterako baliabideen datuak inskribatu eta erregistro-zenbakia eman.

b) Erregistroko dokumentazioa euskarri elektronikoan jaso, gorde eta zaintzea.

c) Larrialdien Euskal Sistema osatzen duten zerbitzu publikoei erregistro-datuetaarako sarbide elektronikoa seguru ematea.

d) Izena eman duten jardueretako titularrei beren erregistro-datueta iristeko sarrera elektronikoa seguru ematea.

e) Izena emandako Autobabes Planen arduradunei erregistro-datuak aldizka eguneratzeko eskatzea.

20. artikulua.- Autobabes-planen atala

1.- Erregistroko lehen atalean –autobabes-planak–, Erregistroaren antolaketaren oinarri izango dira erregistro-orriak, haren aplikazio-eremuko zentro, establezimendu, bulego edo esparru bakoitzerako. Erregistro-horri bakoitzean, gutxienez, hauek jasoko dira:

a) Datu orokorrak:

- Establezimenduaren izena.
- Jardueraren epigrafea, I. eranskinen katalogoaren arabera.
- Helbide osoa (helbidea, posta-kodea, herria, Lurralde Historikoa).
- Telefonoa, faxa, e-maila.
- Kideen kopurua (sailkapena: langileak eta bisitariak).
- Langileen kopurua (sailkapena).
- Establezimenduko jardueren edo erabileren deskripzioa, solairuz solairu (*).
- Eraikin berean ematen diren jarduerak edo ikastaroak.
- Titularraren datuak (izena, helbidea, telefonoa...) eta, titularra ez bada, Planaren arduradunaren datuak.
- Jarduerarako lizentziaren edo baimenaren data.
- Lizentzia edo baimena ematen duen Administrazio organoari Plana aurkeztu zaion data.
- Plana idatzi duenaren datuak eta, bategokio, zein enpresakoa den.
- Ezarpen-ziurtagiria eman den data.
- Planaren azken berrikuspenaren data.

b) Egiturari buruzko datuak:

- Egitura-mota.
- Lur arrasetik gorako eta beheko solairuen kopurua.
- Erabilgarria den edo eraikita dagoen azalera (solairuz solairu) (*).
- Kanpora ematen duten irteeren kopurua (*).
- Barruko eskaileren kopurua (*).

- Kanpoko eskaileren kopurua (*).
- Suteen sektorizazioa (*).
- Egiturari edo eraikinari buruzko bestelako informazio esanguratsua (*).
- Energia-hornidurako ebaketa-giltzen kokapena (gasa, argindarra, gasolioa...) (*).

c) Inguruneari buruzko datuak:

- Ingurunearen deskripzioa (hiria, landa, ibaiak, merkantzia arriskutsuko ibilgailuak dabiltzan bideak, industriak, basoak, eraikin isolatua edo beste jarduera batzuen erdian, ingurunekeo jarduerak eta titularrak) (*).

- Ingurunean arriskuan dauden elementuak (*).

d) Irisgarritasuna:

- Sarbideari buruzko datu eta informazio esanguratsua (*).
- Ibilgailuak establezimenduaren fatxadetara iristeko sarbideen ezaugarriak (*).
- Suhiltzaileak iristeko moduko fatxaden kopurua (*).

e) Arriskutsuak diren eta arriskuan dauden guneak:

- Eraikinak duen arrisku-motarik esanguratsuenak (*).
- Bertan biltzen edo lantzen diren produktu arriskutsuen mota eta kopurua (izena, mota eta kopurua) (*).
- Arriskuan dauden elementuak (*).

f) Suteetatik babesteko instalazio teknikoak. Ea badauden:

- Suteen detekzioa eta alarma. Instalazioaren berrikuspen-data (*).
- Suteetako alarma-sakagailuak. Instalazioa azkeneko berrikusi zen data (*).
- Su-itxalgailuak. Instalazioaren berrikuspen-data (*).
- Sute-aho hornituak. Instalazioaren berrikuspen-data (*).
- Sute-ahoak. Instalazioaren berrikuspen-data (*).
- Zutabe lehorra. Instalazioaren berrikuspen-data (*).
- Suteak automatikoki itzaltzea. Instalazioaren berrikuspen-data (*).
- Larrialdietako argiztapena. Instalazioaren berrikuspen-data (*).
- Seinaleak. Instalazioaren berrikuspen-data (*).
- Talde elektrogenoa eta etenik gabeko elikadura. Instalazioaren berrikuspen-data (*).
- Ponpatze-ekipoa eta ur-tanga. Instalazioaren berrikuspen-data (*).

g) Planoak.

- Asteriskoa daramaten datu guztiak grafikoki agertuko dira planoetan, bakoitza bere eskala eta sinbologiarekin. Gutxienez plano hauek aurkeztuko dira, euskarri informatikoan eta pdf-n.

- Establezimenduaren kokapenaren eta ingurunearen planoak.

- Establezimenduak dituen sarbideen planoak.

- Arriskutsuak diren eta arriskuan dauden guneen planoak, solairuz solairu.

- Suteetatik babesteko instalazioen sistemaren planoak, solairuz solairu.

2.- Halaber, atal eta erregistro-orri horretan honako hauek inskribatuko dira: titularrak autobabes-planaren ezarpen-ziurtagiriari dagokionez egiten dituen komunikazioak eta berrikuspen-datak, planaren aldaketa dakartenean, bai eta azken ariketa edo simulakroa noiz egin den ere.

3.- Jarduera batek arrisku edo zaurgarritasun berezia daukanean, berez edo arrisku edo zaurgarritasun bereziko eremuetan dagoelako, erregistroaz arduratzen den organoak hau eska diezaieke jardueraren titularrei: beste datu batzuk aurkez ditzatela, erregistroaren xedeetarako beharrezko, egoki eta proportziosko badira.

Era berean, autobabes-plan edo aurreikusteko moduko arriskueterako baliabide osoa komunikatzea eska dezake. Erregistroaz arduratzen den organoak ofizios eskatuta bakarrik inskribatuko dira autobabes-plan edo aurreikusteko moduko arriskueterako baliabide osoa».

20 bis artikulua.- Aurreikusteko moduko arriskueterako baliabideen atala.

Erregistroko bigarren atalean –aurreikusteko moduko arriskueterako baliabideak–, erregistro-orrietan antolatuko dira mota horretako baliabidea daukaten ekitaldiak, eta orri bakoitzean honako idatzohar hauek jaso behar dira:

a) Ekitaldiaren izena.

b) Ekitaldi-mota eta haren deskripzio laburra.

c) Zenbat inguru bertaratu daitezkeen, eta bertaratu daitezkeenen tipologia, adinen arabera.

d) Datak eta hasierako eta amaierako orduak.

e) Lekua edo kokapena (posta-helbidea, koordenatuak, errutometroa, irteera-helduera eta abar).

f) Jardueraren titularrak (edo lege-ordezkarria) eta harremanetarako bideak.

g) Baliabidearen deskripzioa eta eskuragarri dauden bitartekoen inbentarioa (botika-kutxa, desfibriladorea, anbulantzia, segurtasuneko langileak eta abar).

h) Baliabidearen arduraduna ekitaldia egiten den bitartean eta harremanetarako bideak.

i) Larrialdiei aurre egiteko jardun-plana.

j) Planimetria.

21. artikulua.- Erregistroaren antolakuntza eta funtzionamendua.

Larrialdien eta babes zibilaren arloan eskumenak dituen organoa sartuta dagoen Eusko Jaurlaritzaren Sailak finkatuko ditu izen emateko inprimaki normalizatuak, eta Autobabes Planen

Erregistro Orokorraren irizpide teknikoak eta prozedurazkoak. Horiek bermatuko dute bai interesatuen sarbide telematikoa, bai datuen konfidentzialtasuna, segurtasuna eta osotasuna ere.

22. artikulua.– Inskripzio-prozedura.

1.– Autobabes-plana edo aurreikusteko moduko arriskueterako baliabidea eduki behar duten jardueren titularrek, jarduerak abiarazi baino lehen, Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorrean inskribatzeko eskatu behar dute eta inskribatu beharreko datuak komunikatu, dekretu honetan azaldutako nahitaezko dokumentazioa erantsita.

Halaber, jardueren titularrei eskatu ahal izango zaie I. eranskinera batu ez diren jardueren autobabes-planak egiteko eta erregistratzeko, jarduerok arrisku edo zaurgarritasun berezia daukatenean berez edo arrisku edo zaurgarritasun bereziko eremuetan daudelako. Eskakizun hori ofizioz egingo da larrialdien eta babes zibilaren gaitan eskumena duen zuzendaritzaren ebazpenaren bidez. Halakoetan, jardueraren titularrari arrazoizko epea emango zaio plana egin eta ezartzeko, baina epe hori ezin da izan urtebete baino luzeagoa.

Era berean, Euskadin dauden zentro, establezimendu, bulego eta esparruen titularrek eskatu ahal izango dute erregistroan inskribatzeko, nahiz eta I. eranskinaren barruko jardueretan ez ibili, baldin eta borondatez egiten badute autobabes-plana dekretu honetan ezarritakoarekin bat etorrita; hala, inskripzioa nahitaezkoa zaien establezimenduen betebeharrak berberak izango dituzte erregistroarekiko, baina edozein unetan eta borondatez eskatu ahal izango dute erregistro-orria ezereztea, jarduerak jarraitu arren.

2.– Erregistro-prozedura euskarri elektronikoa izapidetuko da; horretarako, tresnak eta aplikazioak doitu dira Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoa barruan, eskaera bide elektronikoa bidez aurkeztu ahal izateko; horretarako, dokumentazioa onartutako formatuetan aurkeztu behar da, interesduna identifikatu eta gero. Izan ere, hauen bidez identifikatu behar da interesduna: ziurtatze-zerbitzuen emaileen konfiantzazko zerrendan dauden emaileek jaulkitako sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoa oinarritutako sistemen eta itundutako pasa-hitzeko sistemen bidez.

3.– Dekretu honetako autobabes-betebeharrak bete behar dituzten pertsonak bide elektronikoz jardun behar dute erregistroarekin erregistro-datuak inskribatzeko, aldatzeko, eguneratzeko edo zuzentzeko, bat etorrita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.3 artikuluan xedatutakoarekin.

4.– Erregistroko inskripzio-, aldaketa- edo ezerezte-eskaerak ez baditu bete beharrekoak betetzen, organo eskudunak hamar eguneko epea emango dio interesdunari akatsa zuzen dezan edo behar diren agiriak ekar ditzan, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena eman ondoren Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

5.– Erregistroko inskripzio-, aldatze- edo ezerezte-eskaerak Erregistroaz arduratzen den organo eskudunak ebatzi eta jakinarazi behar ditu, hilabeteko epean, gehienez ere, aurkeztu zirenetik; epe horretan ebazten ez badira, interesdunak uler dezakete eskaera onartu dela.

Jakinarazpenean, espresuki adieraziko zaio eskatzaileari bere jarduerarekin lotutako datuak baliozkotasunez inskribatu direla, baita esleitutako erregistro-zenbakia eta ondorio-data ere.

6.– Erregistroan jasotako datuen deklarazio-ondorioak baino ez ditu izango inskripzioak, eta berez ez dakar administrazio-onarpen edo -baliozkotzerik behartutako subjektuek deklaraturako datuen egiazkotasunari, gaurkotasunari edo zuzentasunari buruz. Bestalde, inskripzioa administrazio-izapide independentea da, hots, ez dauka loturarik administrazio-lizentzia edo -eskuesteak eman, aldatu edo

errebokatzeekin edo aplikatu beharreko edozein administrazio-kontrolekin; beraz, inskripzioak ez du ordezten, babesten zein emantzat jotzen haien existentzia edo indarraldia.

23. artikulua.- Jardueren titularren betebeharrak.

1.- Izen emandako jardueren titularrek etengabe eguneratu behar dituzte erregistroan emandako datuak. Horretarako, larrialdien eta babes zibilaren arloan eskuduna den EAeko Administrazio Orokorreko organoari jakinarazi behar zaizkio gerora gertatutako aldaketak, dena delako dokumentazioa emanda, edo elektronikoki identifikatu ondoren erregistroko datuetara sartu, egiaztatu eta, behar izanez gero, aldatu egingo dituzte.

2.- Larrialdien eta babes zibilaren arloan eskuduna den EAeko Administrazio Orokorreko organoak jardueren titularrei dokumentazioa eta informazio gehigarria eskatu ahal izango diete, izena eman duten edo izena emateko bidean dauden enpresen datuak osatzeko edo egiaztatzeko.

24. artikulua.- Erregistro-orria ezereztea.

1.- Jarduera amaituz gero autobabes-plana Erregistroan inskribatu zaion zentro, establezimendu, bulego edo esparruan, titularrak idatzoharra ezerezteko eskatu behar du gehienez hilabeteko epean, jarduera amaitu zenetik. Horretarako, datuak ezerezteko formulario elektronikoa beteko da, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa eskuratu baitaiteke. Euskal Autonomia Erkidegoan larrialdien eta babes zibilaren inguruko eskumena duen administrazio orokorreko organoak hilabeteko epean emango du Euskadiko autobabes-planen erregistro orokorreko baja-ebazpena, eta interesdunari komunikatuko dio.

2.- Aurreko paragrafoetan esandakoa gorabehera, amaiera-data jakina duten jardueren autobabes-plan inskribatuei edo aurreikusteko moduko arriskueterako baliabide inskribatuei dagokienez, bai eta ekitaldien komunikazio hutsei dagokienez ere, Erregistroak ofizioz ezereztuko du kasuan kasuko erregistro-orria, behin jarduera amaituta.

25. artikulua.- Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren larrialdi-zerbitzuen irispide elektronikoa.

1.- Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren larrialdi-zerbitzu publikoek bide telematikoaren bidezko irispide segurua edukiko dute Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorreko erregistro-datu eta agirietara.

2.- Larrialdi-zerbitzuen titular diren administrazio publikoek kasuan kasuko organismoen pertsona baimenduak zehaztu behar dituzte Euskadiko Autobabes Planen Erregistro Orokorreko sarbidea izan dezaten. Pertsona baimendu horien ardura izango da erregistro-datuak eta -dokumentuak dekretu honetan ezarritako xedeetarako bakarrik erabil daitezzen bermatzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi honetan xedatutako guztia aldizka berrikusi eta moldatuko da arriskuen eta haien eraginen ezagutza-mailara, garapen teknologikoetara, eta autobabesari buruzko oinarritzko estatu-arautegian gerta daitezkeen aldaketetara.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Tokiko entitateek Dekretu honen minimoak garatzeko xedapenak eman ditzakete eta, beren eskumenen barruan, autobabes-obligazioak zabal ditzakete Dekretu honen I. eranskinean ez datozen jarduerak egiten diren zentro, establezimendu, gunee, instalazioa edo egoitzetara, eta Autobabes Planen kontrola eta ikuskaritza egin dezakete.

Bigarrena.- EAeko Babes Zibilaren Batzordeak Dekretu hau garatzen duten proiektu arauemaile

guztiez informatu behar du.

Hirugarrena.- Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko azaroaren 2an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

I. ERANSKINA, AZAROAREN 2KO 277/2010 DEKRETUARENA.

Jardueren katalogoa

1.– Arautegi sektorial espezifikoa duten jarduerak.

a) Industria-, biltegitratze- eta ikerketa-jarduerak:

– Substantzia arriskutsuak dauden establezimenduak: Substantzia arriskutsuak dauden establezimenduak, irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren I. eranskinaren 1. eta 2. zatiko 2. zutabeko kopuruak edo handiagoak daudenean (Substantzia arriskutsuak dauden istripu larrien arriskuak kontrolatzeko neurriak onartu ditu arau horrek).

– Produktu kimikoak biltegitratzeko jarduerak, jarraibide tekniko osagarrietara bilduak, kopuru hauetan:

- ITC APQ-1, 50 m³-tik gorakoak.
- ITC APQ-2, denak.
- ITC APQ-3, denak, kloro likidoa behe presioan biltegitratzekoak izan ezik (< 2,5 bar absolutu).
- ITC APQ-4, denak, edukiontzi mugikorak izan ezik.
- ITC APQ-5, 3., 4. edo 5. kategoriakoak.

• ITC APQ-6, 500 m³-tik gorakoak, edo 200 l-tik gorakoak, A motako produktuak badira; 400 l-tik gorakoak, B motakoak badira, edo 1.000 l-tik gorakoak, C motakoak badira.

• ITC APQ-7, 200 m³-tik gorakoak, edo 600 l-koak edo hortik gorakoak (horietatik 50 l, gutxienez, T+ motakoak, edo 150 l, gutxienez, T motakoak).

• ITC APQ-8, 50 t-tik gorakoak ontziratuta gabe edo 200 t-tik gorakoak ontziratuta, edo 5 t-tik gorakoak, norberak erabiltzeko ontziak badira.

• ITC APQ-9, 1 t-tik gorakoak.

• ITC APQ-10, denak.

– Lehergaiak dauden establezimenduak: otsailaren 6ko 252/2006/Pre Aginduan arautuak. Agindu horren bidez eguneratu zen 10. Jarraibide Tekniko Osagarria, istripu larrien prebentzioari buruzkoa, otsailaren 24ko 130/2017 Errege Dekretuan onartutako Lehergaien Erregelamendukoa.

– Hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarduerak: hondakin arriskutsuak jasotzea, biltegitratzea, balioztatzea edo deuseztatzea, Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak dioenari jarraikiz.

– Meatzaritzarekin lotutako ustiapenak eta industriak: apirilaren 2ko 863/1985 Errege Dekretuan arautuak –meatzaritzako segurtasunaren oinarritzko arauen erregelamendu orokorra onartu baitu arau horrek–, bai eta erregelamendu horren jarraibide tekniko osagarrietan arautuak ere.

– Genetikoki eraldatutako organismoak leku itxian erabiltzeko instalazioak: arrisku handiko jardueratzat (4. motakoa) edo arrisku ertainekotzat (3. motakoa) hartuak urtarrilaren 30eko 178/2004 Errege Dekretuan, zeinak garapen- eta exekuzio-erregelamendu orokorra onartu baito apirilaren 25eko 9/2003 Legeari, non finkatzen den zein araubide juridiko duen genetikoki eraldatutako organismoak leku itxian erabiltzeak, nahita zabaltzeak eta merkaturatzeak.

– Substantzia edo material biologiko arriskutsuak lortzeko, eraldatzeko, tratatzeko, biltegitratzeko eta banatzeko instalazioak: 4. edo 3. taldeko agente biologikoak dituzten instalazioak, maiatzaren 12ko 664/1997 Errege Dekretuan zehaztuak. Lanean dihardutela, langileak agente biologikoekiko esposizioarekin zerikusia duten arriskuetatik babesteari buruzkoa da arau hori.

b) Garraio-azpiegituren jarduerak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareko tunelak. 2004/54/EE Zuzentaraua, 2004ko apirilaren 29koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Europako errepide-sareko tunelen segurtasunari buruzkoa, eta errepideei buruzko foru-araudia.

– Merkataritza-portuak: interes orokorreko portuak, merkataritza-erabilera dutenak, bai eta haien erabilera osagarri edo laguntzaileak, azaroaren 26ko 48/2003 Legean zehaztuak. Interes orokorreko portuetako zerbitzuei eta araubide ekonomikoari buruzkoa da lege hori.

– Aireportuak, aerodromoak eta aireportuetako beste instalazioak: aireportuetako segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legean arautuak, bai eta nazioarteko arautegiaren mendekoak ere (OACI-Abiazio Zibilaren Nazioarteko Erakundearen Arauak eta Gomendioak), orobat Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren estatu-arau aplikagarrien mendekoak ere.

c) Energia-jarduerak eta -azpiegiturak:

– Instalazio nuklearrak eta erradioaktiboak: abenduaren 3ko 1836/1999 Errege Dekretuan arautuak. Instalazio nuklearrei eta erradioaktiboari buruzko erregelamendua onartu du arau horrek.

– Azpiegitura hidraulikoak (presak eta urtegiak): A eta B kategoriakotzat hartuak 1996ko martxoaren 12ko Aginduan, non onartzen den presa eta urtegiei buruzko segurtasunaren arautegi teknikoa, bai eta 1995eko urtarrilaren 31ko Ebazpenean ere, non xedatzen den Ministroen Kontseiluaren akordio bat argitaratzea, uholdeen aurrean babes zibila planifikatzeko oinarritzko gidalerroa onartzen duena.

d) Ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak. Ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren arloko arautegiaren mendeko ekitaldietarako lekuak, egoitzak eta instalazioak, baldin eta ezaugarri hauek badituzte:

– Aldi baterako establezimendu, egitura edo instalazioetan:

• Eraikin itxiak: 300 pertsona baino gehiagorentzako lekua dutenak, edo 28 m edo gehiagoko ebakuazio-altuera dutenak.

• Aldi baterakoak, eramangarriak, desmuntagarriak edo sasoikoak diren instalazio edo egitura itxiak: 300 pertsona baino gehiagorentzako lekua dutenak.

– Barrutietan edo leku irekietan:

• Sarrera mugatua duten esparru edo barrutiak, 700 lagun baino gehiagorentzako edukiera edo kapazitatea dutenak.

• Leku irekiak: 10.000 lagun edo gehiagorentzako edukiera eta kapazitatea dutenak.

e) Autobabes-arautegi sektorialaren mendeko beste jarduera batzuk. Zentro, establezimendu, gune, instalazio, bulego edo antzekoetan egiten diren bestelako jarduerak, arautegi sektorial batek autobabes-betebeharrak ezartzen dituenean, dekretu honen ildotik.

2.– Arautegi sektorial espezifikorik gabeko jarduerak.

a) Industria- eta biltegiatze-jarduerak:

– Industria-establezimenduaren konfigurazio-mota, ingurunearekiko kokapena eta sektorearen sute-arriskua kontuan hartuz, sute-sektore edo -area bakoitzaren eraikitako azalera balio hauek gainditzen dituztenean: abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren II. eranskineko 2.1 taulan agertzen direnak (industria-establezimenduetako suteen kontrako segurtasun-araudia onartu du dekretu horrek).

– Substantzia arriskutsuak dauden establezimenduak: substantzia arriskutsuen kantitatea denean irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren I. eranskinaren 1. eta 2. zatietako 2. zutabearen zehaztutakoen % 60 edo gehiago eta bertan adierazitako mailaren azpitiko kopuruak daudenean, bai eta bertan adierazitako atalaseak baino txikiagoak ere (dekretu horrek neurriak onartu ditu istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko).

– Suaren karga-dentsitatea neurtuta eta zuzenduta, industria-establezimenduaren konfigurazio-motaren eta ingurunearekiko kokapenaren arabera, gaudituz egiten dituztenak ondoko taulako mailak. Maila horiek finkatzeko, erreferentziatuz hartu dira abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuaren I. eranskineko 1.3 taulan ezarritakoak (industria-establezimenduetako suteen kontrako segurtasun-araudia onartu du dekretu horrek).

Industria-establezimenduaren konfigurazio-mota			Suaren karga-dentsitate neurtua eta zuzendua (Qs)	
			Mcal/m ²	MJ/m ²
n	Bertikalea	Lehen mailan, lur arrasetik behera	200 < Qs	850 < Qs
		Solairuan, lur arrasetik gora	300 < Qs	1275 < Qs
ean	Horizontal	Lehen mailan, lur arrasetik behera	200 < Qs	850 < Qs
		Solairuan, lur arrasetik gora	400 < Qs	1700 < Qs
i		Lehen mailan, lur arrasetik behera	800 < Qs	3400 < Qs
		Solairuan, lur arrasetik gora	1600 < Qs	6800 < Qs
o		Lehen mailan, lur arrasetik behera	1600 < Qs	6800 < Qs
		Solairuan, lur arrasetik gora	1600 < Qs	6800 < Qs
D			3200 < Qs	13600 < Qs
E			3200 < Qs	13600 < Qs

Apartatu honen barruko industria-establezimenduek bazeukaten jarduteko lizentzia abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretuak indarra hartu aurretik (industria-establezimenduetako suteen kontrako segurtasun-araudia onartu du dekretu horrek).

– Bigarren eta hirugarren taldeko likido hoztailea duten hotz-instalazioak, guztira erabilitako kopuruak 3 t-tan gainditzen dituztenean.

– IP02, IP03 eta IP-04 jarraibide tekniko osagarrietara bildutako instalazioak dituzten establezimenduak, likido sukoiak eta erregaiak biltegitratzeko edukiera 50 m³-tik gorakoa denean.

b) Garraio-jarduerak eta -azpiegiturak:

– Denetariko bidaiarien eta salgaien lehorreko garraiorako geltokiak eta aldageltoki modalak, 300 pertsona baino gehiago sartzen direnak edo 2.500 m²-tik gorako azalera erabilgarria dutenak.

– Trenbideak, metroa eta tranbia.

– Trenbide-tunelak, 1.000 m luze edo gehiago direnak.

– Errepide-sareko tunelak: hirikoak, 200 m baino luzeagoak, edo hiriartekoak, 500 m baino luzeagoak.

– Ordainpeko autobideak.

– Aparkatzeko guneak, salgai arriskutsuen errepide eta tren bidezko garraiorako.

– Merkataritza-portuak.

c) Energia-jarduerak eta -azpiegiturak:

– Azpiegitura hidraulikoak, Presen eta Urtegien Segurtasunari buruzko Erregelamendu Teknikoa erkidego barneko arrotan aplikatzearen ondoriozkoak.

– Argindarra sortzeko zentroak edo instalazioak: 50 MW-tik gorako potentzia izendatua dutenak.

– Argindarra sortu eta goi tentsioko bihurtzeko instalazioak.

d) Osasun-jarduerak:

– Erabilera sanitarioetarako establezimenduak, arreta medikoak ospitaleratze-erregimenean edo tratamendu intentsiboak edo kirurgikoak ematen dituztenak.

– Erabilera sanitarioko beste edozein establezimendu, 28 m edo gehiagoko ebakuazio-altuera duena, edo 300 pertsona edo gehiago sartzen direna, edo 2.500 m²-tik gorako azalera erabilgarria duena.

e) Hezkuntza-jarduerak:

– Hezkuntza-erabilerarako establezimenduak, bereziki desgaitasun fisiko edo psikikoren bat dutenentzat, edota ebakuazioa beren kabuz egitea ezinezko dutenentzat.

– Hezkuntza-erabilerarako beste edozein establezimendu, baldin eta 28 m edo gehiagoko ebakuazio-altuera badu, edo 50 pertsona edo gehiago sartzen badira.

f) Egoitza-jarduera publikoak:

– Bizitegi publikorako erabilera duten establezimenduak, egoitza- edo aterpe-jarduerak dituztenak, baldin eta gaua pasatzekoak badira eta oheak 10 edo gehiago badira.

– Maiatzaren 29ko 102/2000 Dekretuaren barruan dauden hotel-establezimenduak.

– Eguneko zentroko jarduerak egiten direnean eta 50 pertsona baino gehiago sartzen direnean, edo eraikinaren ebakuazio-altuera 28 m edo gehiagokoa denean, edo ebakuazioa beren kabuz egin ezin duten pertsonak daudenean.

– Zaharrentzako edo/eta ebakuazioa beren kabuz egin ezin duten pertsonentzako egoitzak.

g) Beste jarduera batzuk: zentro, establezimendu, gunea, instalazio, egoitza edo antzekoetan egindako beste jarduerak, ezaugarri hauetakoren bat dutenak:

– Erabat merkataritzarako, administraziorako, zerbitzuak emateko edo beste edozertarako eraikinak edo zentroak, bertako ebakuazio-altuera 28 m edo gehiago bada, edo 300 pertsona edo gehiago sar badaitezke, edo 2.500 m²-tik gorako azalera duten merkataritza-jarduerak.

– Erljio-kultuko jardueretarako lekuak, kapazitatea edo edukiera 300 pertsonatik gorakoa dutenak.

– Kudeatutako garaje eta aparkalekurako lokalak, 1.000 m²-tik gorako azalera dutenak.

– Desmuntagarriak edo sasoikoak diren instalazio itxiak, 300 pertsona edo gehiago sartzen direnak, amaitzeko data zehatza duten aldi baterako ekitaldiak ez direnean.

– Camping instalazioak, Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen definizioari jarraikiz, eta Turismoa Antolatzeko Legea aldatzen duen abenduaren 23ko 16/2008 Legeari jarraikiz.

Leku irekiak: 20.000 lagun edo gehiagorentzako kapazitatea edo edukiera dutenak.

3.– III bis kapituluaren araututako aldi baterako ekitaldiak.

Iraupen jakineko eta mugatuko gizarte jarduerak edo ekitaldiak, behin egitearekin agortzen direnak, eta sartu gabe daudenak autobabes-plan baten aurreikuspenetan, jarduerak egiten diren establezimenduaren jarduera-lizentziaren babesean, arautegi sektorial berezia eduki edo ez, baldin eta honako ezaugarri hauek betetzen badituzte:

– Aldi baterako establezimendu, egitura edo instalazioetan:

• Eraikin itxiak: 300 pertsona baino gehiagorentzako lekua dutenak, edo 28 m edo gehiagoko ebakuazio-altuera dutenak.

• Aldi baterakoak, eramangarriak, desmuntagarriak edo sasoikoak diren instalazio edo egitura itxiak: 300 pertsona baino gehiagorentzako lekua dutenak.

– Barrutietan edo leku irekietan:

• Sarrera mugatua duten esparru edo barrutiak, 700 lagun baino gehiagorentzako edukiera edo kapazitatea dutenak.

• Leku irekiak: 10.000 lagun edo gehiagorentzako edukiera eta kapazitatea dutenak.

II. ERANSKINA, AZAROAREN 2KO 277/2010 DEKRETUARENA

Autobabes Planaren eduki minimoa.

Autobabes Planak honako hauek denak edukiko ditu, kapitulu bakoitza aplikatzen den eraikinetan, instalazioetan eta jardueretan.

Orrialdeak zenbatutako aurkibidea.

1. kapitulua.- Titularrak eta jardueraren kokagunea.

1.1.- Jardueraren helbidea. Jardueraren izena edo marka. Telefonoa eta faxa.

1.2.- Jardueraren titularrak. Izena edo sozietatearen izena. Helbidea, telefonoa eta faxa.

1.3.- Autobabes Planaren arduradunaren izena eta, beste norbait bada, larrialdietarako jardueraren zuzendariarena. Helbidea, telefonoa eta faxa.

2. kapitulua.- Jardueraren eta hura egiten den ingurune fisikoaren deskripzio zehatza.

2.1.- Planaren barruan egindako jarduera bakoitzaren deskripzioa.

2.2.- Planaren barruko jarduerak egindako zentroaren, establezimenduaren, egoitzen eta instalazioen deskripzioa.

2.3.- Erabiltzaileen sailkapena eta deskripzioa.

2.4.- Jardueraren eraikinak, instalazioak eta guneak dauden hiri-, industria- edo natura-inguruneen deskripzioa.

2.5.- Sarbideen deskripzioa. Kanpo laguntzarako irisgarritasun-baldintzak.

Kapitulu hau idatzizko agirien bidez egingo da, eta gutxienez agiri grafiko hauek eramango ditu:

- Kokapenaren planoak, eta haren barruan, sarbideak, komunikazioak eta abar dauden hiri-, industria- edo natura-ingurunerik hurbilena.

- Jarduera egiten den eraikin, instalazio eta gune guztien plano deskribatzaileak.

3. kapitulua.- Arriskuen inbentarioa, analisia eta ebaluazioa.

Gutxienez, sektoreko arautegien barruko arriskuek agertu behar dute. Kapitulu honetan sartuko dira:

3.1.- Arriskua sortu edo okertu dezaketen elementu, instalazio, ekoizpen-prozesu eta abarren deskripzioa eta kokapena.

3.2.- Jarduerak berez dituen arriskuen eta kanpotik izan ditzakeen arriskuen identifikazio, azterketa eta ebaluazioa (babes zibileko planetan eta hurbileko jarduera arriskutsuen planetan aintzat hartutako arriskuak).

3.3.- Jarduera egiten den eraikin, instalazio eta guneetara sarbidea duten eta jarduerarekin lotuta edo lotu gabe dauden pertsonen identifikazioa, kuantifikazioa eta tipologia.

Kapitulu hau idatzizko agirien bidez egingo da, eta gutxienez agiri grafiko hauek eramango ditu:

Elementu edo instalazio arriskutsu guztien kokapen-planak, solairuz solairu, bertakoak zein

ingurukoak.

4. kapitulua.- Autobabes-neurrien eta -baliabideen inbentarioa eta deskripzioa.

4.1.- Detektatutako arriskuak kontrolatzeko, larrialdiei aurre egiteko eta kanpoko larrialdi-zerbitzuen esku-hartzea errazteko neurrien eta baliabideen –pertsonek nahiz tresnak– inbentarioa eta deskripzioa.

4.2.- Eskura dauden neurriak eta baliabideak –pertsonek nahiz tresnak–, segurtasunari buruzko xedapenei jarraiki.

Kapitulu hau idatzizko agirien bidez egingo da, eta gutxienez agiri grafiko hauek eramango ditu:

- Autobabeserako baliabideek duten kokapenaren planoak, UNE arautegiaren arabera.

- Ebakuazio-ibilbideen eta barruko babestokien planoak, ebakuatu edo leku itxian geratu beharreko pertsonen kopurua adierazita, arautegiari jarraiki.

- Arrisku-guneen edo -sektoreen banaketa-planoak.

5. kapitulua.- Instalazioak mantentzeko programa.

5.1.- Arriskuzko instalazioetako prebentziozko mantentze-lanen deskripzioa, haien kontrola bermatzen duena.

5.2.- Babes-instalazioetako prebentziozko mantentze-lanen deskripzioa, haien eraginkortasuna bermatzen duena.

5.3.- Segurtasunezko ikuskatzeak egitea, arautegiari jarraiki.

Kapitulu hau idatzizko agirien bidez gauzatuko da, eta orri zenbakituen liburuxka batean agertuko dira egindako mantentze-lanak eta segurtasun-ikuskapenak, instalazioen arautegiei jarraiki.

6. kapitulua.- Larrialdietako jarduera-plana.

Larrialdien hasierako kontrola egiteko jarduerak zehaztu behar dira, alarma, ebakuazioa eta sorospena bermatzeko. Horren barruan joango dira:

6.1.- Larrialdien identifikazioa eta sailkapena:

- Arrisku-motaren arabera.

- Larritasunaren arabera.

- Okupazioaren eta giza baliabideen arabera.

6.2.- Larrialdietan jarduteko prozedurak:

a) Detekzioa eta alerta.

b) Alarmarako tresnak.

b.1.- Abisuak emango dituen pertsonaren identifikazioa.

b.2.- SOS Deiak-en Ekintzak Koordinatzeko Zentroarekiko identifikazioa eta komunikatzeko moduak.

c) Larrialdiari aurre egiteko tresnak.

d) Ebakuazioa edo barruko babesa.

e) Lehenengo laguntzak ematea.

f) Kanpoko laguntzak hartzeko moduak.

6.3.- Larrialdietako jarduerak egingo dituzten pertsonen eta taldeen identifikazioa eta zereginak.

6.4.- Larrialdi Plana martxan jartzearen arduradunaren identifikazioa.

7. kapitulua.- Autobabes Plana goragoko plan batzuetan txertatzea.

7.1.- Larrialdia jakinarazteko protokoloak.

7.2.- Autobabes Planaren zuzendaritzaren eta Autobabes Plana txertatzen den Babes Zibileko Planaren zuzendaritzaren arteko koordinazioa.

7.3.- Autobabes Antolaketaren eta Babes Zibileko sistema publikoaren planen eta jardueren arteko elkarlana.

8. kapitulua.- Autobabes Planaren ezarpena.

8.1.- Planaren ezarpenaz arduratuko den pertsonaren identifikazioa.

8.2.- Autobabes Planean parte-hartze aktiboa duten langileak prestatzeko eta gaitzeko programa.

8.3.- Langile guztiak Autobabes Planaren inguruan prestatzeko eta informatzeko plana.

8.4.- Erabiltzaileak oro har informatzeko programa.

8.5.- Bisitarietzako seinaleak eta arauak.

8.6.- Baliabide eta bitarteko materialak eskuratzeko eta egokitzeko programa.

9. kapitulua.- Autobabes Planaren eraginkortasunari eustea eta eguneratzea.

9.1.- Prestakuntza birziklatzeko programa eta informazio-programa.

9.2.- Baliabideak eta bitartekoak ordezkatzeko programa.

9.3.- Ariketa eta simulakroen programa.

9.4.- Autobabes Plana osatzen duen dokumentazio osoa berrikusteko eta eguneratzeko programa.

9.5.- Auditoretzen eta ikuskapenen programa.

I. gehigarria.- Komunikazioen direktorioa.

1.- Larrialdietako pertsonalaren telefonoak.

2.- Kanpoko laguntzaren telefonoak.

3.- Komunikatzeko beste modu batzuk.

II. gehigarria.- Larrialdiak kudeatzeko formularioak.

III. gehigarria.- Planoak.

II BIS ERANSKINA, AZAROAREN 2KO 277/2010 DEKRETUARENA

Aurreikusteko moduko arriskuetaarako baliabidearen gutxieneko edukia.

Aurkibidea, orrialdeen zenbakiekin.

1.– Jardueraren titularren eta kokapenaren identifikazioa.

- Jardueraren izena, jardueraren kokapenaren posta-helbidea. Telefonoa eta helbide elektronikoa.
- Jardueraren titularrak. Izena edo sozietatearen izena, posta-helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.
- Aurreikusteko moduko arriskuetaarako baliabidea aplikatzearen arduradunaren izena, posta-helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa.

2.– Deskripzioa: jarduera, erabiltzaile-mota, jarduera garatzen den eremu fisikoa, sarbideak eta larrialdi-zerbitzuetaarako irisgarritasuna (haiei buruzko dokumentazio grafikoarekin).

3.– Arriskuen azterketa.

4.– Erakundeak zer autobabes-neurri eta -bitarteko dituen (gizatiarrak zein materialak) arriskuak kontrolatu, larrialdiei aurre egin, eta larrialdietako kanpoko zerbitzuen esku-hartzea errazteko.

5.– Larrialdietan jarduteko prozedurak, honako hauek sartuta: detekzioa, SOS-DEIAK Larrialdiak Koordinatzeko Zentroari alerta ematea, larrialdiari aurre egiteko tresnak, ebakuazioa edo barruko babes (konfinamendua), lehenengo laguntzak ematea, kanpoko laguntzak jasotzea, eta babes zibileko planekiko eta agintariekiko integrazioa eta lankidetzak.

6.– Larrialdiei aurre egiteko jardun-plana, honako hauek zehaztuta: izan daitezkeen istripuak eta gertaerak, eta haiei dagozkien larrialdi-egoerak, bai eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko jarduketa-prozedurak ere. Larrialdiei aurre egiteko jardute-plana abian jartzeko arduraduna identifikatuko da.

7.– Baliabidea ezarri eta ebaluatzeko programa, baliabidean aktiboki parte hartzen duten langileak prestatu eta gaitzea barne, eta erabiltzaileentzako informazio-programa, seinaleztapena eta bisitarientzako jardute-arauak barne.

8.– Eranskinak.

a) Dokumentazio grafikoa:

- Kokapena.
- Sarbideak.
- Errutometroa.
- Elementuen banaketa.
- Bitartekoen eta baliabideen banaketa.
- Ebakuazio-bideak.

b) Komunikazio-direktorioa.

- Larrialdietako langileen telefonoak.

- Kanpoko laguntzaren telefonoak.
- Komunikatzeko beste modu batzuk.

III. ERANSKINA, AZAROAREN 2KO 277/2010 DEKRETUARENA

Autobabes Planaren ezarpen-ziurtagiria

ESTABLEZIMENDUAREN DATUAK

Izena:

Helbidea:

Jarduera edo erabilera:

Telefonoa:

Faxa:

E-maila:

JARDUERAREN TITULARRAREN EDO BERE LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK

Izena:

NAN:

Helbidea:

Telefonoa:

Faxa:

E-maila:

ZIURTATZEN DUT:

Aipatutako establezimenduaren Autobabes Plana osorik ezarri dela, plan horretako zehaztapenen arabera eta zenbait jarduera, zentro edo establezimenduk larrialdietan eduki behar dituzten autobabes-betebeharrak arautzen dituen azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuari jarraiki.

.....(e)n,(e)koaren ...(e)(a)n

(lekua eta data).

Izpta.:

(Jardueraren titularra edo bere legezko ordezkaria)

III BIS ERANSKINA, AZAROAREN 2KO 277/2010 DEKRETUARENA

Aurreikusteko moduko arriskueterako baliabidea ezarri izanaren ziurtagiria

EKITALDIAREN DATUAK

JARDUERAREN TITULARRAREN EDO HAREN LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK

Izena:

NANa:

Helbidea:

Telefono-zenbakia:

Fax-zenbakia:

Helbide elektronikoa:

HAU ZIURTATZEN DUT:

Aipatutako aurreikusteko moduko arriskueterako baliabidea osorik ezarri dela, bertan azaldutako moduan eta 277/2010 Dekretuan ezarritako irizpideen arabera (277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes-betebeharrak arautzen dituen, larrialdiei aurre egiteko).

.....(e)n,.....(e)ko.....aren.....(e)(a)n.

(Lekua eta data)

Sin.:

(Jardueraren titularra edo haren legezko ordezkaria).

IV. ERANSKINA, AZAROAREN 2KO 277/2010 DEKRETUARENA

Ariketen edo simulakroen jakinarazpena

Erregistro-zenbakia (autobabes-araategikoa):

ESTABLEZIMENDUAREN DATUAK

Izena:

Helbidea:

Jarduera edo erabilera:

Telefonoa:

Faxa:

E-maila:

JARDUERAREN TITULARRAREN EDO BERE LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK

Izena:

Helbidea:

Telefonoa:

Faxa:

E-maila:

ARIKETARI EDO SIMULAKROARI BURUZKO INFORMAZIOA

Data:

Ordua:

Deskripzio laburra:

V. ERANSKINA, AZAROAREN 2KO 277/2010 DEKRETUARENA

Definizioak.

Dekretu honetan erabilitako kontzeptu eta zehaztapen nagusiak honela definitu behar dira:

- Istripu larria: 1254/1999 Errege Dekretua eta hura aldatzen duen 948/2005 Errege Dekretuaren arabera, edozein gertaera –adibidez ihes, isurketa, sute edo leherketa garrantzitsuak–, dekretu hori aplikatzen zaion edozein establezimenduren jarduera baten kontrolatu gabeko prozesu baten ondorio denean, arrisku larria sortzen dienean, berehala edo gerora, pertsonen, ondasunen eta ingurumenari, establezimenduaren barruan edo kanpoan, eta substantzia arriskutsu bat edo gehiago tartean daudenean.

- Jarduera: larrialdietara eraman dezaketen istripu edo gertaeren sortzaile izan daitezkeen eragiketak edo lanak.

- Edukiera: jendaurreko ikuskizunetarako edo jolas-jardueretarako esparru edo eraikin batean sar daitezkeen jendea. Hala ere, autobabes-planean kontuan hartu behar dira bertan diren pertsona guztiak, baita establezimendu, ikuskizun edo jolas-jardueraren antolaketaren zerbitzuko langileak ere.

- Agente biologikoak: mikroorganismoak –genetikoki eraldatuak barne–, zelula-hazkuntzak eta giza endoparasitoak, edozein infekzio, alergia edo toxikotasun sor dezaketenak.

• Sailkapena.

Infekzio-arriskuaren arabera, agente biologikoak hiru taldetan banatzen dira:

a) 1. taldeko agente biologikoa: gizakiari gaixotasunik nekez sortuko diona.

b) 2. taldeko agente biologikoa: gizakiari gaixotasunen bat sor diezaiokeena, arriskutsua izan daitekeena langileentzat, kolektibitatera nekez zabalduko dena eta normalean profilaxi edo tratamendu eraginkorra duena.

c) 3. taldeko agente biologikoa: gizakiari gaixotasun larriren bat sor diezaiokeena, oso arriskutsua izan daitekeena langileentzat, kolektibitatera zabal daitekeena eta normalean profilaxi edo tratamendu eraginkorra duena.

d) 4. taldeko agente biologikoa: gizakiari gaixotasun larriren bat sor diezaiokeena, oso arriskutsua izan daitekeena langileentzat, kolektibitatera oso erraz zabal daitekeena eta normalean profilaxi edo tratamendu eraginkorrik ez duena.

- Alarma: larrialdi bat denean, pertsonen jarraibide jakin batzuk jarraitzeko abisua edo seinalea.

- Alerta: arretazko neurri jakinak hartzeko deklaratu den egoera, gertaera edo istripu baten aukera handia eta hurbila dagoelako.

- Ebakuazio-altuera: ebakuazioa hasten den mailaren eta kanpoko gune seguruaren arteko kota-diferentzia.

- Instalazioen gunea: instalazioaren perimetroa plano horizontal batean proiektatzearen azalera mugatua.

- Autobabesa: jarduera publiko zein pribatuetako titularrek hartutako ekintza- eta neurri-sistema -beren baliabideekin eta bitartekoekin, eta beren eskumenaren baitan-, pertsonen eta ondasunen

gaineko arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko; larrialdiei erantzun egokia emateko eta jarduera horiek babes zibilaren euskal sisteman integratzen direla bermatzeko.

- Su-karga: gune batean dauden material erregai guztiak erretzean askatzen diren energia kalorifikoaren batura (eraikinaren edukiak eta eraikuntzako elementuak) (UNE-EN 1991-1-2:2004).

- Zentroa: establezimendua, gunea, egoitza edo instalazioa: Jarduera bat egiten den eta titular baten kontrolpean dagoen zonalde oso bat.

- Barruko babesa: istripu baten ostean, jendea barruko gune babestu eta kanpotik isolatu batean geratzea.

- Domino-efektua: arrisku-eragile batetik beste bat sortzea, eragina duelako -arriskuan dauden kanpoko elementuetan ez ezik- establezimendu bereko edo aldameneko edukiontzietan, hodietan, ekipoetan edo instalazioetan, eta horietatik beste arrisku batzuk sortzea.

- Ariketa: jarrera jakin batzuk indartzeko jarduera.

- Ebakuazioa: larrialdi batek eragin dien pertsonak modu planifikatuan eramatea behin-behineko leku seguru batera.

- Lehergaia:

a) Jotzeagatik, marruskatzeagatik, suteagatik edo beste arrazoi batzuegatik lehertzeko arriskua duen substantzia edo prestakina (R2 arriskua).

b) Jotzeagatik, marruskatzeagatik, suteagatik edo beste arrazoi batzuegatik lehertzeko arrisku handia duen substantzia edo prestakina (R3 arriskua).

c) 1. mailakotzat hartutako substantzia, prestakina edo objektua, 1957ko irailaren 30eko Merkantzia Arriskutsuak Nazioartean Errepidez Garraiatzeko Europako Akordioaren barruan (ADR, Nazio Batuak) eta haren aldaketetan. Hala txertatu zen 1994ko azaroaren 21eko Kontseiluaren 94/55/CE Zuzentaraura, Estatu kideen legeak hurbiltzeari buruzkoa, merkantzia arriskutsuak errepidez garraiatzearen inguruan.

- Presa handia: gutxienez baldintza hauetako bat betetzen duten urtegiak eta presak:

a) 15 metrotik gorako altuera, zimenduaren behe-behetik goialdera arte.

b) 10 eta 15 metro arteko altuera, ezaugarri hauetako bat baldin badute:

1.- Goialdearen luzera 500 metrotik gorakoa.

2.- 1.000.000 metro kubikotik gorako edukiera.

3.- Segundo bakoitzean 2.000 metro kubikotik gora husteko ahalmena.

4.- Zimenduan zailtasun bereziak edo ezohiko ezaugarriak dituztenak.

• Saillkapena:

Arriskuaren arabera, presak izan daitezke:

a) A kategoriakoak: hautsi edo gaizki funtzionatuz gero eragin larria izan dezaketenak herriguneetan, funtsezko zerbitzuetan, gauzetan edo ingurumenean.

b) B kategoriakoak: hautsi edo gaizki funtzionatuz gero kalte handiak eragin ditzaketenak

gauzetan, ingurumenean, edo etxe-kopuru txiki batean.

c) C kategoriakoak: hautsi edo gaizki funtzionatuz gero garrantzi ertaineko kalteak eragin ditzaketanak, eta oso inoizka bakarrik heriotzak.

- Genetikoki eraldatutako organismoak leku itxian erabiltzeko instalazioak: organismo baten material genetikoa eraldatzeko jarduerak egiten dituen instalazioak -edo eraldatu ondoren hazi, gorde, erabili, batetik bestera eraman edo suntsitu-, baldin eta jarduera horietan itxitura-neurriak hartzen badira, jendearekiko eta ingurunearekiko harremana murrizteko.

• Saillkapena: genetikoki eraldatutako organismoak leku itxian erabiltzeko jarduerak sailkatuko dira giza osasunarentzat eta ingurunearentzat duten arriskuaren arabera:

a) 1. motakoak. Batere ez edo hutsaren hurrengo arriskua duten jarduerak: itxituraren 1. maila aski da giza osasuna eta ingurunea babesteko.

b) 2. motakoak. Arrisku txikiko jarduerak: itxituraren 2. maila aski da giza osasuna eta ingurunea babesteko.

c) 3. motakoak. Arrisku ertaineko jarduerak: itxituraren 3. maila aski da giza osasuna eta ingurunea babesteko.

d) 4. motakoak. Arrisku handiko jarduerak: itxituraren 4. maila aski da giza osasuna eta ingurunea babesteko.

- Instalazio nuklearrak.

Halakoak dira:

a) Zentral nuklearrak: errektore nuklear baten bidez energia ekoizteko edozein instalazio finko.

b) Errektore nuklearrak: erregai nuklearrak dauzkan edozein egitura, barruan fisio nuklear automantendu bat gerta daitekeenean, neutroi gehiago behar izan gabe.

c) Substantzia nuklearrak sortzeko erregai nuklearrak erabiltzen dituzten lantegiak, eta substantzia nuklearrak tratatzen dituzten lantegiak, horien artean erregai nuklear irradiatuak tratatzeko edo birprozesatzeko instalazioak.

d) Substantzia nuklearrak biltegitratzeko instalazioak, salbu eta substantzia horiek garraiatu bitartean biltegitratzen diren lekuak.

e) Fusiozko edo fisiozko erreakzio nuklearrak erabiltzen dituzten gailuak edo instalazioak, energia sortzeko edo energia-iturri berriak ekoizteko edo garatzeko.

- Instalazio erradiaktiboak.

Halakoak dira:

a) Erradiazio ionizatzailearen iturri bat duten instalazioak, edozein motakoak.

b) Erradiazio ionizatzaileak sortzen dituzten aparatuak, 5 kilovoltetik gorako potentzial-diferentziarekin dabilzanak.

c) Material erradiaktiboak ekoitzi, erabili, egon, tratatu, manipulatu edo biltegitratzen diren lokalak, laborategiak, lantegiak eta instalazioak, garraiatu bitarteko biltegitratzeak izan ezik.

1.- Lehen kategoriako instalazio erradioaktiboak:

- 1) Uranioa, torioa eta haien konposatuak ekoizteko lantegiak.
- 2) Uranio naturalezko elementu erregaiak ekoizteko lantegiak.
- 3) Iturri erradiaktiboak erabiltzen dituzten instalazioak, industria-irradiaziorako.

4) Substantzia erradiaktiboen inbentario oso handiak erabiltzen diren instalazio konplexuak, edo energia-emari handiko erradiazio-sortak sortzen dituztenak, era horretan instalazioak izan lezakeen eragin erradiologikoa handi samarra litzatekeelarik.

2.- Bigarren kategoriako instalazio erradioaktiboak:

1) Instalazio batek erabiltzen edo biltegitratzen dituen nuklido erradiaktiboak -zientzia, medikuntza, nekazaritza, merkataritza edo industriarako erabil daitezkeenak-, eta beren aktibitate osoak mila aldiz edo gehiagotan gainditzen duelarik Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak IS-05 Jarraibidean finkatutako salbuespen-balioak.

2) Instalazio batek erabiltzen dituen X izpien sorgailuak, 200 kilovoltetik gorako puntako tentsioarekin funtziona dezaketenak.

3) Partikulen azeleragailuak, eta neutroi-iturriak biltegitratzen diren instalazioak.

- Esku-hartzea: larrialdiaren aurrean erantzutea da, pertsonak eta ondasunak babesteko eta sorosteko.

- Uholdea: normalean lehor dauden lursailak urperatzea, leku jakin batean ohikoa dena baino ur gehiago joan delako, nahiko bat-batean.

- IS-05 jarraibide teknikoak: Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak finkatzen du zein instalazio ez diren erradiaktiboak (substantzia erradiaktiboen aktibitateak edo masa-unitateko aktibitateak ez baditu gainditzen instalazio nuklearrei eta erradiaktiboetarako buruzko I. eranskinaren A taulako salbuespen-balioak).

- ITC-10 jarraibide tekniko osagarria: bere helburua da substantzia leherkorrek parte hartzen duten istripuak prebenitzea, bai eta haien eragina murriztea ere pertsonengan eta ingurunean.

- ITC MI IF 002: jarraibide tekniko osagarria: hozgarrien izen, nomenklatura, sailkapen-talde eta ondorio fisiologikoei buruzkoa.

- ITC MI IP02: jarraibide tekniko osagarria: petrolio-likidoak biltegitratzeko instalazio berriei buruzkoa, eta instalazioen zabalpenei eta aldaketei buruzkoa, petrolio-likidoak ontziratuta gabe banatzen dituztenak:

- a) Biltegitratzeko beste instalazio batzuetara.
- b) Ibilgailuak hornitzeko instalazioetara.
- c) Instalazioan bertan kontsumitzeko biltegitratze-instalazioetara.
- d) Hegazkinentzako erregaiak biltegitratzeko eta hornitzeko instalazioetara.
- e) Barkuentzako erregaiak biltegitratzeko eta hornitzeko instalazioetara.

- ITC MI IP03 jarraibide tekniko osagarria: bere helburua da instalazioan bertan kontsumitzeko erregai likidoen biltegiek bete behar dituzten arau teknikoak finkatzea. Erregai likidoen biltegiei aplikatutako zaie, erregaiak industria, nekazaritza, abeltzaintza, etxea eta zerbitzu-entzako direlarik, bai

eta berriaz aipatu ez baina parekotzat har daitezkeen beste kontsumo batzuetarako ere.

- ITC MI IP04 jarraibide teknikoak: bere helburua da ibilgailuak hornitzeko instalazioen agindu teknikoak finkatzea. Ibilgailuei erregai likidoak hornitzeko instalazio berriei aplikatuko zaie, bai eta daudenen zabalpen eta aldaketei ere.

- ITC MIE APQ-1 jarraibide tekniko osagarria: likido sukoiak eta erregaien biltegitratzeak jarraitu beharreko aginduak finkatzen ditu (sugar-puntua 55 °C-koa edo handiagoa duten likidoak).

- ITC MIE APQ-2 jarraibide tekniko osagarria: etilen-oxidoa biltegitratzean jarraitu beharreko aginduak finkatzen ditu.

- ITC MIE APQ-3 jarraibide tekniko osagarria: kloroa biltegitratzean jarraitu beharreko aginduak finkatzen ditu.

- ITC MIE APQ-4 jarraibide tekniko osagarria: amoniako anhidroa biltegitratzean jarraitu beharreko aginduak finkatzen ditu.

- ITC MIE APQ-5 jarraibide tekniko osagarria: presioan konprimitutako, likidotutako eta disolbatutako gasak eta haien nahasketak biltegitratzean eta erabiltzean jarraitu beharreko aginduak finkatzen ditu, saltzeko, banatzeko edo ondorengo erabiltzeko direnak, botila soltetan, bloke edo bateriatan, salbu eta berriazko arautegia dutenak.

- ITC MIE APQ-6 jarraibide tekniko osagarria: produktu kimiko korrosiboak egoera likidoan biltegitratze-presioan eta -tenperaturan biltegitratzeak eta haiekin jarduera lotuak egiteak jarraitu beharreko agindu teknikoak finkatzen ditu.

- ITC MIE APQ-7 jarraibide tekniko osagarria: likido toxikoak biltegitratzeko, erabiltzeko, kargatzeko eta deskargatzeko instalazioei aplikatzen zaie.

- ITC MIE APQ-8 jarraibide tekniko osagarria: nitrogeno askoko amonio-nitratoa duten ongarriak biltegitratzeko instalazioek jarraitu beharreko segurtasun-agindu teknikoak finkatzen ditu.

- Likido erregaia: sugar-puntua 38 °C-koa edo handiagoa duen likidoa da.

- Likido sukoiak: sugar-puntua 38 °C-tik beherakoa duen likidoa da.

- Baliabideak: pertsona, makina, ekipo eta sistemen multzoa, arriskuak murrizteko edo deuseztatzeko balio dutenak, bai eta sor daitezkeen larrialdiak kontrolatzeko ere.

- Edukiera: eraikin, gune, establezimendu, areto, instalazio edo egoitza batean gehienez sar daitezkeen pertsonen kopurua, bertako jarduera edo erabileraren arabera. Edukiera kalkulatzeko, arautegiko edukiera-dentsitateak hartzen dira kontuan. Nolanahi ere, kalkulatu dena baino edukiera handiagoa espero bada, horixe izango da erreferentzia-balioa. Era berean, kalkulatu dena baino edukiera txikiagoa eskatzen badu legeak, horixe izango da erreferentzia-balioa.

- Jarduera ustiatzeko edo hasteko lizentzia edo baimena emateko eskumena duen organoa: jarduera bakoitzari aplikatzen zaion legeriaren arabera, baimena eman behar dion administrazio publikoaren organoa.

- Arriskua: substantzia batek berez duen ahalmena edo egoera fisiko batek duen aukera pertsonari, ondasunari edo inguruneari kalteak egiteko.

- Autobabes plana: jarduera, zentro, establezimendu, gune, instalazio edo egoitza baten marko organikoa eta funtzionala, pertsonen eta ondasunen gaineko arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko, eta larrialdietan erantzun egokia emateko, jarduerako titularraren mendeko esparruan,

jarduera horiek babes zibilaren euskal sistemarekin integratzen direla bermatuz.

- Larrialdietako jarduera-plana: autobabes planaren barruko dokumentu horretan aurreikusten da nola erantzungo zaion larrialdi-mota bakoitzari, hartu beharreko babesak eta esku-hartzeak, prozedurak eta jardueren segida.

- Plangintza: larrialdiei aurre egiteko jarduerak prestatzea da.

- Hotz-instalazioa: halako instalazioetan makina termikoak daude, ekoizpen edo egokitze jakin bat egiten zaien materialak hozteko. Halakoak dira hotz-biltegi-tako instalazio finkoak, izotz-fabrikak, airea girotzeko instalazio finkoak eta zentralizatuak, eta hainbat produktu izozteko edo hozteko instalazioak.

- Arriskuen prebentzioa eta kontrola: behar eta komeni diren neurriak aztertzea eta ezartzea da, arriskutsuak izan daitezkeen egoerak eta haietatik letozkeen kalteak zaintzeko, saihesteko edo murrizteko. Prebentzio-neurri horiek finkatu behar dira gorabehera, larrialdia, istripua gertatu aurretik, edo neurriak aztertu ondoren ikasitakoaz baliatuta.

- Merkataritza-portuak: beren trafikoaren ezaugarriengatik baldintza teknikoak eta segurtasunezko eta administrazio-kontrolako baldintzak dituzte portuko merkataritza-jarduerak egiteko: hau da, edonolako merkantziak kargatzea, deskargatzea, ontziz aldatzea eta biltegiatzea, beren bolumenagatik eta aurkezpenagatik baliabide mekanikoak edo instalazio espezializatuak behar dituztelarik.

- Bitartekoak: elementu naturalak edo teknikoak dira, beren ohiko funtzioa ez da autobabestea, eta larrialdien aurreko prebentzioa eta esku-hartzea erraztu edo hobetzen dute.

- Hozgarria (hozteko fluidoak): beroa eramateko erabiltzen den fluidoa da. Hotz-sistema batean beroa beheko tenperaturetan eta presioan xurgatu, eta goragoko tenperatura eta presiora ematen du. Egoera diluituaren aldaketak gertatzen dira.

• Saillkapena.

Hozgarriak hiru motakoak dira, segurtasun-mailaren arabera:

a) Lehen motakoak: segurtasun handiko hozgarriak. Efektu fisiologikoak sor ditzakete, hau da, deskonposizio-gas toxikoak, sugarren aurrean. Beren usain gogorra abisu bat ba, kontzentrazio arriskutsuak iritsi aurretik.

b) Bigarren motakoak: segurtasun ertaineko hozgarriak. Sortzen dituzten efektu fisiologikoak deskonposizio-gasak dira, toxikoak eta sukoiak edo korrosiboak.

c) Hirugarren motakoak: segurtasun txikiko hozgarriak. Oso sukoiak dira.

- Birgaitzea: normaltasunera itzultzea eta jarduerari berrekitea da.

- Hondakina: apirilaren 21eko 10/1998 Legearen eranskineko kategoriaren batean dagoen substantzia edo objektua, jabeak utzia edo utzi asmo edo utzi behar duena. Dena dela, halakoak ageri dira Hondakinen Europako Katalogoan, Erkidegoko erakundeek onartuan.

- Hondakin arriskutsuak: 952/1997 Errege Dekretuan onartutako hondakin arriskutsuen zerrendan ageri direnak, bai eta haiek egon diren edukiontziak ere. Erkidegoko arautegiak arriskutsutzat jo dituenak, eta Gobernuak onar ditzakeenak Europako arautegiari jarraiki edo Espainiak parte hartzen duen nazioarteko hitzarmenei jarraiki.

- Suaren kontrako erresistentzia: eraikuntzako elementu batek suaren eta kearen aurrean egonkortasun mekanikoari eta estankotasunari eustea da, gas sukoiarik ez botatzea eta isolamendu

termikoa mantentzea. Materialak baldintza horietan irauten duen minutuen arabera baloratzen da, eta RF siglak gehi denboraren kopurua idatzita adierazten da. UNE 23 093, UNE 23 801 eta UNE 23 802 araei jarraituz erabakiko da.

- Arriskua: leku eta denbora jakin batean, gertaera batek gizarte-, ingurune- eta ekonomia-mailako kalteen balio jakin bat gainditzeko probabilitatea.

- Berezko arrisku handia: ≥ 3200 Mcal/m² edo 13.600 MJ/m²-ko su-karga neurtua eta zuzendua duten industria- eta biltegi-jarduerak, Industriako Suteen Kontrako Segurtasun Arautegiari jarraiki.

- Simulakroa: benetako egoera baten simulazioa, egiazkoa balitz bezala.

- Tanga: 0 eta 98 kPa (1 kg/cm²) arteko barne presio manometrikoa jasateko gai den edukiontzia.

- Jardueraren titularra: pertsona fisikoa edo juridikoa, jarduerak egiten diren zentroa, establezimendua, gunea, egoitza edo instalazioa ustiatzen duena edo haren jabe dena.